

Lourdes Otaegi

JOSEBA SARRIONANDIA
MARINEL ZAHARRAREN
KANTUA

LOURDES OTAEGI

JOSEBA SARRIONANDIA
MARINEL ZAHARRAREN
KANTUA

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA

BILBAO
2000

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1^{ngoa}
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayr01@sarenet.es
48010 BILBAO

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: A. G. Rontegui, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-20-2000
ISBN: 84-89816-98-0

AURKIBIDEA

Aurkezpena	9
Bibliografia	11
Orokorra	11
Poesia	11
Prosa	12
1. Sarrera biografikoa	15
2. Idazlanak	17
2.1. Poesia	17
2.1.1. Sarrera	17
2.1.2. <i>Izuen gordelekuetan barrena</i> (Bilboko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1981)	18
2.1.3. <i>Eguberri amarauna</i> (Amnistiaren Aldeko Ba- tzordea, 1983)	26
2.1.4. <i>Marinel zaharrak</i> (Elkar, Donostia, 1987) . . .	27
2.1.5. <i>Gartzelako poemak</i> (Susa, Iruñea, 1992)	32
2.1.6. <i>Hnuy Illa Nyha Majah Yahoo (Poemak 1985-95)</i> (Elkar, Donostia, 1995)	32
2.2. Prosa	35
2.2.1. Sarrera	35
2.2.2. Itzulpenak: Narrazio eta Antzerkia	35
2.2.3. Saiakera eta entsegu liburuak	36
2.2.4. Ipuingintza	43
2.2.5. Narrazioen alderdi tekniko batzuk: kontalariak, kontatze-metak eta ardatz krono-espazialak . .	51
2.2.6. Estiloaz	54
2.2.7. Iturriak eta metaliteratura	55
2.3. Marinel zaharraren ezinbesteko kantua	56

AURKEZPENA

Literatur Kaierak liburu sorta moduan sortua da eta, ezaugarri horri lotuta, lehenengo aleari jarraipena emotera dator bigarren zenbaki hau. Kaiera bati dagokoa neurri eta mailan, literatur gaiak irakurgai bihurtuko dira eta, aldi berean, beste irakurgai batzuk hobeto aituteko giltza be bai.

Aurrekoan moduan, Lourdes Otaegi da oraingoan be egilea, gaia, oster, Joseba Sarrionandiaren literatur lanak.

Aurreko kaieraren haritik, Joseba Sarrionandiaren idazlanak irakurteko eta idazlanon hari eta esanahi nagusiakaz jabetuteko lagun-garri izango da beste hau, bai ikasle-irakasleentzat bai ganerako irakurleentzat be.

Kaiera honetan, kritikoek eta komunikabideek Joseba Sarrionandiaren liburuen ganean zer esan daben aurkituko dau irakurleak. Erexi ezbardinak eta, aldi berean, osagarriak, gure literaturako idazlerik handienetako baten literaturgintzara hurreratuten lagunduteko.

Labayru Ikastegia

BIBLIOGRAFIA

Orokorra

- AZKORBEBEITIA, Aitzpea, *Joseba Sarrionandia: Irakurketa proposamen bat*, Labayru Ikastegia-Amorebietako Udala, Bilbao, 1998.
- IZAGIRRE, Koldo, “IncurSIONES en territorio enemigo”, *Pamiela*, Iruñea, 1997.
- KORTAZAR, Jon, *Lurra eta Luma. Euskal poesia 80ko hamarkadan*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1997.
- OLAZIREGI, Maria Jose, “Literatur irakurketaren gaurkotasuna: gazteen zaletasun eta jokabideak”, *Egan*, 1996-2, 35-48 or.
- OTAEGI, Lourdes, “Joseba Sarrionandia y el destino del viejo marino”, *Insula*, Madrid, 623, 1998.
- TORREALDAI, Joan Mari, *Euskal kultura gaur. Liburu en mundua*, Jakin, 1997.
- URIBE, Kirmen, “Asalto a los cielos: Estética y escritura en la poesía de Atxaga y Sarrionandia”, *Insula*, Madrid, 623, 1998.
- Askoren artean, *Euskal Literatura Urratzen. Literatura III*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1986.

Poesia

- ALDEKOA, Iñaki, “El viaje como metáfora de la poesía: J. Sarrionandia y F. Juaristi”, *Antología de la poesía vasca*, 1993, 30-33 or.
- ALDEKOA, Iñaki, “Joseba Sarrionandiaren poesia: Itsaso gartzelatu”, *Hegats*, 1989, I alean, 5-10 or.
- ALDEKOA, Iñaki, “La poesía militante”, *Antología de la Poesía Vasca/ Euskal Poesiaren Antologia*, Visor, Madrid 1993, 24-25 or.
- KORTAZAR, Jon, “J. Sarrionandia”, *Idatz & Mintz*, 1982, 1, 34 or.
- KORTAZAR, Jon “Izuen Gordelekuetan barrena”, *Jakin*, 1982, 24, 106-122 or.
- KORTAZAR, Jon, “Joven poesía vasca. Un acercamiento a la última producción poética”, *Congreso de literatura*, Ed. Castalia, Madrid, 1989, 287-299 or.
- KORTAZAR, Jon, *Laberintoaren oroimena*, Baroja, Donostia, 1989.
- KORTAZAR, J. “Konpromezua eta kanpoko literatura” *Laberintoren oroimena*, Baroja, Donostia, 1989, 97-98 or.
- KORTAZAR, Jon “Hnuy illa nyha majah yahoo” (Poemak 1985-95), *Lurra eta luma*, 1997, Labayru Ikastegia-BBK, Bilbo.

- IBARGUTXI, F. "Urrutiko parajeetatik hemengo oinazera", *Zabalik*, 1987-XII-18, 2. or.
- XX, "Marinel zaharrak", *Argia*, II-14, 6-7 or.
- IÑURRIETA, Iñaki, "Marinel zaharrak", *Habe*, 1988, 128, 29 or.
- XX "Marinel zaharrak", *Susa*, 1989, 23-24, 14-15 or.
- SAN MARTIN, Joan, "Eguberri amarauna", *Egan*, 1984, 3-4 alea, 156-158 or.
- KANDELA kolektiboak, *Euskal Letren Dantza 1983*, Hordago, 1983.
- ITURRALDE, Jose Mari, "Epilogo", *Gartzelako poemak*, Susa, Iruñea, 1992, 115-116 or.
- MARKULETA, Gerardo, "Baltza, latza eta garratza", *El Diario Vasco*, *Zabalik*, 1992-12-2, 3 or.
- ALDAI, Xabier, (1996) "Bizitza bera bezala bizitza bera", *Egunkaria*, 1996-III-2.
- OTAMENDI, J.L., "Nora itzuli?", *Argia*, 1996, 1.566, 1996-II-25.

Prosa

Ipuingintza

- XX "Joseba Sarrionandia. Narrazioak", *Argia*, 1984-I-14, 4 or.
- XX "Narrazioak", *Susa*, 1989, 23-24 alea, 8-9 or.
- XX. "Sarrionandiaren Narrazioak", *Euskal letren dantza 1983*, Kandela, 1985, Hordago, 83-88 or.
- EPALTZA, Aingeru, "Narrazioak", *Hegats*, 1994, 8, 19-26 or.
- KORTAZAR, Jon, *Reduccions aldizkaria*, Barcelona, 1984, 22, 94-95 or.
- KORTAZAR, Jon, "Gaurko narratiba eta euskal literatura", *Jakin*, 1982, 25, 86-93 or.
- MENDOZA, J.L. "En el principio fue el mito", *Pamiela*, 1985, 10, 8 or.
- SAN MARTIN, Joan, "Intxaur baten azalean", *Egan*, 1984, 3-4, 156-158 or.
- KANDELA kolektiboak, *Euskal Letren dantza 1983*, Hordago 1983.
- XX, "Intxaur baten azalean", *Susa*, 1989, 23-24, 7-8 or.
- ZABALA, J.R., "Atabala eta euria", *Mundaiz*, 1987, 33, Urtarrila-Ekaineko alean.
- XX "Beste liburu bolada fuerte bat", *Zabalik*, *Diario Vasco*, 1990-IV-11,3 or.

MUÑOZ, Joxean, "Ifar aldeko orduak", *Habe*, 1990, 177 alea, 29 or.
XX "Trajedien kronika klabe minorrean", *Argia*, 1990-V-20, 63 or.
IPARRAGIRRE, Pilar, "Ifar aldeko orduak", *Punto y Hora*, 1990,
572. alea, 63 or.
XX "Izkiritaturik aurkitu ditudan nire ipuinak", *Egin*, 1990-V-1,
Liburuak III.

Entseguak

GARTZIA, Joserra, "Joseba Sarrionandia: Ni ez naiz hemengoa",
Literatur Gazeta, 1, 4. or.
ZELAIETA, Angel, "Euskal literatura eta gizartea edo Sarrionandia-
ren *Ni ez naiz hemengoa*", *Jakin*, 1985, api-eka, 35. alea, 119-127
or.
XX "Joseba Sarrionandia. *Ni ez naiz hemengoa*", *Argia*, 1986-V-5, 4.
or.
XX "Ni ez naiz hemengoa", *Susa*, 1989, 23-24 alea, 10-11 or.
SAN MARTIN, Joan, "Joseba Sarrionandia...", *Egan*, 1986, 3-4 alea,
203-207 or.
XX "Ez gara gure baitakoak", *Argia*, 1990-II-27, 62 or.
MARKULETA, Gerardo, "Sarrionandia: samurtasun berreskuratua",
Zabalik, Diario Vasco, 1990-I-31 (3 or.)
MARKULETA, Gerardo, "Sarrionandiaren samurra zertan den",
Zabalik, Diario Vasco, 1990-II-28, 3 or.
JIMENEZ, Edorta, "Ereduak", *Zabalik, Diario Vasco*, 1990-XX-22,
25 or.
MARKULETA, Gerardo, "Munduaren beste partera bidaltzeko gutu-
na", *Argia*, 1990-XII-23, 62 or.
IRAETA, Iñaki, "Ainhoari gutunak", *Habe*, 1991, 192. Zk., 34 or.
MARKULETA, Gerardo, "Deserriko eruditoaren jolas berriak",
Zabalik, Diario Vasco, 1993-I-6
LOPEZ GASENI, Manu, "Joseba Sarrionandiaren *Han izanik hona
naiz* (Elkar, 1992)", *Egan*, 1993-1 Donostia, 251 or.

1. SARRERA BIOGRAFIKOA

Joseba Sarrionandia Uribelarrea Igorretan jaio zen, Durango ondoko herrixkan, 1958ko apirilaren 13an. Euskal Filologiako ikasketak egin zituen Deustun, eta lizentziatu ondoren euskara irakasle gisa jardun zuen lanean. Bergarako U.N.E.D.en Fonetika irakasle izan zen, bai eta Udako Euskal Unibertsitatean ere.

1975-80 urteen inguruan ugariak izan ziren *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Ibaizabal* eta *Pott* aldizkarietan eginiko kolaborazio periodistikoak, beti ere euskara eta euskal literaturaren edo zinearen inguruko gaiak ardatz zituela. 1980an eman zituen ezagutzera lehen literatur sorkuntzak sariketa literarioen bitartez: bi ipuin, “Maggie indazu kamamila” (Arabako Diputazioaren “IX Ignacio Aldekoa saria”) “Enperadore eroa” (Bilboko Udalaren saria) eta poema liburu bat, *Izuen gordelekuetan barrena* (R.M.Azkue saria).

1980an preso sartu zuten eta hogeita zortzi urteko kondena ezarri zioten ETAko partaidea izateagatik. Kartzelako urte horietan liburuak idazten eta argitaratzen jarraitu zuen, harik eta, 1985ean Martuteneko kartzelan zegoelarik, ihesi joan zen arte, euskal abeslari ezagun baten kantaldiaren okasioaz baliaturik, eta baffle handietako batean gordeta. Ihesi joanez geroztiko hamabost urte inguru hauetan erregulartasunez iritsi dira argialetxeetara eta liburudendetara bere izkribuak.

Euskal letren esparru ezagunean daramatzen hogeitsu urte hauetako emaitza oparoa da dagoeneko. Literaturaren arloan eskaini duen obrak gure garaiko euskal sortzaileen artean leku berezia izatera eram du, hala kalitatez, kritikoen iritziz, nola irakurle kopuru eta salmenta kopuruei dagokienez.

Lan honen oinarri gisa erabili dugun inkestaren ondorioen bitartez badakigu Sarrionandiaren liburuak irakasleek 16-18 urte bitarteko gazteentzat gomendatuenetakoak direla, bereziki gailentzen delarik urteak aurrera egin arren, *Narrazioak* liburuak izandako arrakasta handia, beste narrazioen aldean, eta olerki nahiz saiakerak liburuak oso atzera uzten dituelarik. Gazteek, bestalde, irakurketa hori gustukoa dutela aditzera eman du era berean Mari Jose Olaziregik gazteen irakurketa-zaletasunen inguruan egindako ikerketa eta inkesten emaitzak. Irakurle gazteen artean, beraz, oso harrera ona izan du, eta adinean gora egin ahala hobea. Bestalde, Joan Mari Torrealdaik egindako inkestek euskal idazlerik estimatuenen artean kokatzen dute eta bere obrak “obrarik hoberenak” sailean ere bai.

Idazleek aldiz, bereziki 1980z geroztik idazten hasitakoek, Sarrionandiaren *Izuen gordeleketan barrena* eta *Narrazioak* liburuek beraiengan izandako eragin nabarmena aitortu izan dute, eta kritikoe-
ek ere, 1980ko mugarri horren garrantzia azpimarratu izan dute, B. Atxagaren *Etiopia* eta *Izuen gordeleketan barrena* argitaratzeak markaturikoa.

Ondorioz, euskal letren barrutian ari den hogeit hamar urte inguruko lite-
ratura arloko jardun honek Joseba Sarrionandia euskal literaturaren
protagonista garrantzitsuenetakoa bat bilakatu du, irakurleen, kritiko-
en nahiz idazleen aukeraz.

2. IDAZLANAK

- Izuen gordelekuetan barrena.* Bilboko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1981.
Narrazioak Elkar, Donostia, 1983.
Intxaur azal baten barruan. Eguberri amarauna. Amnistiaren Aldeko Batzordea. Lizarran inprimatua, 1983.
Ni ez naiz hemengoa. Pamiela, Iruñea, 1985.
Atabala eta euria. Elkar, Donostia, 1986.
Marinel Zaharrak. Elkar, Iruñea, 1987.
Marginalia. Elkar, Donostia, 1988.
Ez gara gure baitakoak. Pamiela, Iruñea, 1989.
Izeba Mariasunen ipuinak. Elkar, Donostia, 1989.
Ainhoari gutunak. Elkar, Donostia, 1990.
Ifar aldeko orduak. Elkar, Donostia, 1990.
Gartzelako poemak. Susa, Iruñea, 1992.
Han izanik hemen naiz. Elkar, Donostia, 1992.
Hnuy illa nyha majah yahoo. Elkar, Donostia, 1995.
Hitzen ondoeza. Txalaparta, Tafalla, 1997.
Hau da ene ondasun guzia. Txalaparta, Tafalla, 1999.

Itzulpenak:

- Lur eremua* in *T.S. Eliot euskeraz.* Hordago, Donostia, 1983, 123-167 or.
Hamairu ate. Elkar, Donostia, 1985.
Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak. Pamiela, Iruñea, 1985.
Marinela. Susa, Iruñea, 1985.
Hezurrezko xirulak. Elkar Donostia, 1991.
Poemas naufragos. Galegoz heldutako poemak. Susa. Iruñea, 1991.
Marinel zaharraren balada. Pamiela, Iruñea, 1995.

2.1. POESIA

2.1.1. Sarrera

Sarrionandiaren poesia liburuak bost dira: *Izuen gordelekuetan barrena* (1980), *Eguberri amarauna* (1983), *Marinel zaharrak* (1987), *Gartzelako poemak* (1992) eta *Hnuy illa nyha majah yahoo (Poemak 1985-95)* (1995). Aurten argitaraturiko *Hau da ene ondasun guzia* liburuia izateaz gain, disko batean jasotzen ditu Sarrionandiak berak errezitaturiko zenbait poema.

Poesia itzulpenen artean, aldiz, T.S. Eliot (1888-1965) idazle ifaramerikarraren poesia itzuliz Gabriel Arestik eta Pott Bandako zenbait partaidek eginiko liburuan parte hartu zuen, eta *Lur eremua* (*The Waste Land*) hartu zuen bere ardurapean. (*TS Eliot euskaraz*. Hordago, LUR, Donostia, 1983).

Hezurrezko xirulak, Galegoz heldutako poemak eta S.T. Coleridge-ren *Marinel zaharraren balada* (*The rime of the ancient mariner*) poesia itzulpenen artean aipatu behar dira. T.S. Eliot eta S.T. Coleridge bezala, Joseba Sarrionandiaren erreferentziazko idazlea den Fernando Pessoa-ren *Marinela* (*O marinheiro*) obra itzuli zuen (Susa 1985).

Aipamen berezia merezi du poesia itzulpenen artean, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuak (Pamiela, Iruñea, 1985). Izan ere, liburu honetan munduan barrena eta mendeetan gaindi sorturiko olerkigintzan, Sarrionandiak bere denboran irakurritakoen artean hurbilekoenak egin zaizkionen bertsoia egiten baitu liburu honetan. Horrela irekitzen da irakurlearen begien aurrean mundu zabaleko literatura askotariko horren mostra zabala, Sarrionandiaren “alter ego” diren idazle mota guztietako horien emaitza aurkezten digularik. Bere obraren zale diren irakurle euskaldunei aukera eskaintzen die haiek ezagutzeko, eta bestetik, literatur iturrien inguruko gogoe-tarako bide ematen die liburu honek literaturzaleei, geroago aipatuko ditugun saiakera liburu-etako iradokizunek bezalaxe.

Ez dira denak itzulpenak ordea, Joseba Sarrionandiak liburu honetan sartu dituen poemak. Konstantino Kavafisek garai historikoen testuinguruan kokaturiko poema helenisten tankerako apokrifoak egin ohi zituen moduan, zenbait apokrifo sartu ditu tartekaturik *Izkiriaturik...* liburu honetan. Berak aitortzen baitu “...aparte utzi ditut *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan agerturiko apokrifo batzuk” (*Marinel zaharrak*, hitzaurrea, 8 or.). Hitzaurrean itzul-tzeaz eta sortzeaz dioenarekin bat datorren jokaera da hauxe; literatur sorkuntzaren nahiz translazioaren izaerari buruzko funtsezko utopikotasunean eta nahitaezko kreatibotasunean oinarritzen baita.

2.1.2. *Izuen gordelekuetan barrena* (Bilboko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1981)

a) Sarrera

Poesia liburuen artean aipagarrientzat jotzen den *Izuen gordelekuetan barrena* 1981ean eman zuen argitara Bilboko Aurrezki Kutxak, “VI. R. M. Azkue” sariaren irabazle modura. Liburuaren hi-

tzaurrean egileak poesigintzaren arloan sentitzen zuen deserosotasuna aitortzen zuen “errez idazten dira poemak, baina poesia ona idaztea gauzarik zailena da” eta, beharbada, horregatik esaten du bere obra hau “liburudendetan baino gordairu zaharren batean atxikitzea, berari eta adiskideei bakarrik dagokien lana” dela. Idazle gazte (23 urte) apalaren oharrok gora-behera, funtsean literatur zeregina- ren arloan jarduterakoan anbiziotsu agertzen da. *Narrazioak* liburuaren “*post scriptum*”ean aitortzen duenez, euskera adierazkorrago eta literaturarako gaiago egitea da bere benetako lehia. Jarrera honek nahiz literatura egiteko ideal perfekzionista eta zorrotz horrek, Lauaxetaren lehen liburuko beste “*post scriptum*” ospetsu hura, “Uarra” izeneko idatzi laburra oroitarazten du. Lehen aldiz hark *Bide barrijak* liburuaren ostean azaldu zituen ideia, asmo eta ametsen oihartzuna entzun baitaiteke Sarrionandiarenean: “Olerkari nazala agertutuari enago, izkuntza onetan be gogai batzuk azaldu daikeguzala erakustiarri bai.” (Lauaxeta, *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1985)

Lauaxetaren aipamena ez da alferrikoa, izan ere, nahiz asmoen eta munduko literaturaren ezagutza zabalaren aldetik, nahiz kosmopolitismo zaletasunaren aldetik, nahiz poesia landua eta “dekadentea” egite horretan, ahaidegoa aurkitzen baita bi idazle hauen artean, eta Sarrionandiak gerora ere Lauaxeta aipatu izan baitu euskal literaturan bere erreferentetzat Arestirekin batean. (*Marinel zaharrak*, 1987)

Liburuak bereziki harrera ona izan zuen kritikoen artean, eta ordurako POTT bandaren partaide ezaguna zenaren lehen emaitza honek euskal idazle kontsagaratuen artean leku bat harrarazi zion, oso gazterik.

Poema bilduma bidai kaiera baten gisan azaltzen da, eta idazlearen beraren bi hitzaurre modu ditu, lehena prosan, liburu gehienen tankerakoa, eta bigarrena “Bitakora Kaiera” izeneko poesia, liburuaren egitura aurkezten duena. Zazpi etapa dituen bidaia da Sarrionandiak liburuan zehar egiten duen ibilaldi hori. Sorterritik deserri- ra doan bidaia da, eta, Europako zazpi lurralde eta hiri zahar miti- kotan barrena doalarik, horietako bakoitzean literatura arloko sortzaile zenbaiti omenaldi egiten die: Parisen nobela beltzari, Grezian Kavafis-i, Lisboan Fernando Pessoa-i, Irlandan Yeats eta Dylan Thomas-i eta Pragan Franz Kafkari.

Liburuaren izenburuak apur bat misterioitsu izaten jarraitzen du gaur egun ere, azalpenik aurkitzekotan liburura bertara jo eta *Bitakora kaiera* sarrerako poeman aurki genezake lehen zantzua: bidaz- tia itsas-bidaian zehar zorabiatzen eta izutzen da, orduan gordele- kuak bilatzen ditu, zokoetan gordetzen saiatzen da aldizka atsedan

hartzeko, han ere izuak agertzen zaizkion arren. Bidaian zehar bisitatzen dituen portu horiek, hiri horiek dira gordelekuak: Paris, Grezia, Lisboa, Irlanda eta Pragako gordelekuak. Haietan barrena egini-ko bitakora kaiera da liburua. *Izuen gordeleku* dira ordea, Zein izuetatik babesteko gordelekuak dira? Izua erdialderantz ala zabalalderantz etzaten ari ote den ez jakiteak eragiten omen dio. Zorabiatu egiten da eta orduan laberintoan lagunduko dion haria bilakatuko da kaiera hori, euskarri gisa balioko diona. Esan izan da, Jon Kortazarren lehenengo iruzkin kritikoak (*Jakin*, 1982) aipatzen zuen ez zituela liburuan zehar izu horiek sumatzen, baina agian horixe da egileak bilatzen zuena, itsasoan zeharreko nabegazio alderraiak sortzen dituen izuetatik gordeleketan babestu, eta laberintoan zeharreko laguntzailer duen bitakora kaieraren hariaren soseguari atxiki. Izuen zentzua-
ren giltzetako bat *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan itzultzen duen poema batean dioenak argitu liezaguke “Zein bizimodu hautatu?” “Enparantzan burruka/ eta arazo zailak daude, etxe barruan ardurak/Baratzean lan amaiezinak, itsasoetan izuak”. (*Pro-sodipo Pelakoaren epigrama baten itzulpena*, 33 or.). Hortaz, literatura klasikoan ezaguna den itsasoari buruzko “topos” horietako bat du bereganatua, ziurrenik, itsasoko izuetatik gordetzeko leketan barrena doa bidaiaria.

b) 80ko hamarkadako poesia berriaren manifestua

Gerardo Markuletak “Sarrionandiaren samurra zertan den” (*Zabalik*, 1990) artikuluan, Sarrionandiaren bilakabide literarioaren errepa-so azkarra egiten du eta hiru ezaugarri berezi azpimarratzen ditu liburu honetan: “Europarekiko zabaltasuna, baliabide poetiko erabilien aniztasuna eta hizkera berezi propial baten guraria”. Bere belaunaldi-koentzat liburuak izaniko garrantzia azpimarratzean, bereziki liburua-
ren hasierako *Bitakora kaiera* aipatzen du “gutariko askorentzat guk egin nahi genuen literaturaren manifestu bilakatu zitzaigun”.

Liburu hau argitaratzean, irakurleek nahiz idazleek Sarrionan-diarengan nortasun literario ongi definitu bat nabarmendu zuten, bai pentsamenduz bai lengoaiaz. Aipagarri da bestalde, nortasun literario horrek alde askotatik bere horretan aldagaiz dirauela oraindai-noko liburugintza osoan, gero eta bereagoa delarik bere literatur lanen izaera delikatu, haien fintasun estetiko hain sentsoriala. Munduak sortu eta egoerak azaltzeko gaitasun berezia du, sakontasunez nahiz erliebez aurkeztuz aldi berean, tentsio narratiborik edo extasi poetikorik eragin gabe, intrigaren edo sentimenduen exaltazio pizga-

rriaren premiarik gabe, patxadaz eta neurritz aurrera eginez zabalera nahiz sakonera, leguntasunez eta dotoreziaz.

Gerardo Markuletak artikulu horretan beretzat eta bere hainbat kiderentzat Sarrionandiaren obra honek izaniko “manifestu” balioa Jon Kortazarrek ere jasotzen du “Joven poesía vasca. Un acercamiento” izeneko artikuluan, *Etiopia* osteko poeta taldearen barruan Sarrionandiari ematen dio garrantzi berezia. Artikulu honetan dioenez, Bernardo Atxagak argitaratu zuen poema liburua da oraingo euskal poesiaren mugarri nagusia, baina Sarrionandiak 1985eko *Ni ez naiz hemengoa* liburuan bildu omen zituen hobekienik poesia berri honen oinarri teorikoak. Sarrera gisako batez azal ditzakegu bada, Jon Kortazarren ustez poeta multzo berri honek dituen oinarri teorikoak eta euren ezaugarri orokorrak.

Poeta talde honetakoek oinarri filosofikoei dagokienez Nietzsche, Heidegger eta Wittgensteinen irakurle dira, eta beren obrak deskantuararen filosofiaren adierazbide bilakatzen dira. Zientziak eta positibismoak eskaintzen duen mundu ikuskera segurua baztertzen dute eta historiaren nahiz progresoaren kontzeptuak zentzu gabe bilakatzen zaizkie. Horretaraz gero, izakia hutsaren hurrengo da, eta olerkiak egin lezakeen bakarra bizi den unearen adierazpen agonikoa jasotzea da (288 or.).

Ezaugarri orokorrei dagokienez, bost aipatzen ditu bereziki Jon Kortazarrek:

1. Mendebaldeko kultura bere horretan onartzeari uko egiten zaio. Sarrionandia eta Atxagarengan ukapen hori literarioa da, “halako literatur primitibismo” baten bila abiatu dira, hinduen, eskimoen edo boskimanoen olerkietan, euren hizkera poetikoaren berrikuntza bilatuz.

2. Mende amaierako mugimendu eklektikoaren zantzuak nabarmentzen dira beraiengan, jatorri eta joera guztiz ezberdineko poemak, sentimenduak edo eskolak ametitzen dituzte. Sarrionandiaren *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburua da horren adibide nabarmena, egileari ez zaio axola iturriak, kulturak eta garaiak guztiz ezberdinak izatea.

3. Ez dute asmo abangoardistarik, komunikazioa da gehien axola zaiena, baina aldi berean, estetikari guztizko lehentasuna ematen diote, euskal literaturak eman dituen idazlerik estetikazaleenetako batzuen, Oihenarte, Lauaxeta eta Lizardi, Mirande eta Mikel Lasaren obren eragina euren obretan nabari daitekeelarik. Euskal literaturaz kanpoko eraginen artean, aipagarria da honen guztizko barietatea azpimarratzea, Japoniako haikuen orientalismoetik T.S. Eliot edo Ezra Pound bezalako idazleetaraino doalarik.

4. Funtsean egiten duten olerkia Niaren Poesia dela esaten du Jon Kortazarrek. Ezaugarri honen eredutzat Joseba Sarrionandiaren *Izuen Gordelekuetan Barrena* poema liburua aipatzen du, honek egiten duen bidaia pertsonala delarik guztiz. Gisa berean, poesiak ez du gizarte funtziorik Sarrionandiaren iritziz. Garai horretako elkarriketetan eta liburuetan Sarrionandia, ETako militante izateagatik kartzelan dagoelarik ere, olerkiak gizarte aldaeretan izan lezakeen eraginaz guztiz eszeptikoa da. Halere, “Izuen gordelekuetan barrena” (*Luma eta lurra*, 1998) artikuluan, Jon Kortazarrek ohartzen du liburu honetan “badagoela borondate engagea Sarrionandiarengan, bereziki Irlandari buruzko poemetan.” (68 or.).

5.- Metaforaren lanketa guztiz metikulosoa egiten dela esaten du Jon Kortazarrek eta espresionismoranzko itzulia nagusitzen dela, hain zuzen ere Borgesek esan zuen moduan eginez: “Superar la realidad ambiente y elevar sobre una madeja sensorial y emotiva una ultrarealidad espiritual”.

c) Bizitzaren bidaia

Etiopia-z geroztiko idazleentzat Jon Kortazarrek zedarritu zituen ezaugarri komun eta orokor hauetatik abiatutik, *Izuen gordelekuetan barrena*-ri buruzko azterketa berezi edo zehatzagoetara jo dezagun.

Ñaki Aldekoak argitaraturiko bi lan aipa daitezke bereziki atal honetan, alde batetik, 1993ko *Antologia de la poesía vasca*-n egiten duen aipamena jasoz “El viaje como metáfora de la poesía: J. Sarrionandia y F. Juaristi” (30-33 or.) eta *Hegats* aldizkarian (1989, I. zb, 5-10 or.) argitaraturiko “Joseba Sarrionandiaren poesia: Itsaso gartzelatua”. Ikuspuntu berari eusten dio bi lanetan. *Hegats* aldizkarian 1989ko artikuluan zehaztasunez agertzen du ikuspuntu hori. Bere ustez, *Izuen gordelekuetan barrena*-k (1981) bidaiaren eskema arketipikoari erantzuten dio. Bere protagonista nagusia Ulises dugu, eta liburua zedarritu ahala, izaera mitikoa darien herrialde eta ziutateetan zehar erori gabe nabigatzen du. Zazpi lekutara heltzen da ontzia: sorlekua edo abialekua —baina baita helmuga ere— ze Kavafis poetak dioen bezala —eta honetan Sarrionandia estu-estuan jarraitzen zaio— “eduki ezazu beti Ithaca zeure buruan/ hara heltzen zarenean bete baita zure fatua”. Berehala dator Paris mitikoa, imajinazioaren sormen hori; geroago Grezia, Lisboa, Irlanda, Praga eta, amaitzeko, erbestea. Bidaiaren patua eta paradoxa dugun erbestea, bidaiarako gonbitea eta, era berean, bere ukazioa: noragabeko bidaia.” (5 or.).

Iñaki Aldekoaren iritziz, liburuak egiten dituen ebokazio literario guztien artean bi dira sinbolo nagusiak: bidaiatu bai baina bere jomugara iritsiz gero fatua beteko zaion Ulisesen bidaia, eta bestetik, Kavafis poetaren ziutatearen zama, “beste leku eta beste hirien bila dabilen bidaiari nekatuak pentsatzen du “Ez duk aurkituko beste itsaso eta beste lurrik/ Ziutatea hirekin joango duk beti./ Betiko kale-etara itzuliko haiz/ Suburbio berdinetan helduko zaik edadea/ ze, ziutatea berbera baita beti/ etzak besterik bilatu/ etzegok/ Ezta hiretzako bide edo barkurik ere.”

d) *Bidaia literarioa*

Hortaz, liburu hau poeta eta itsas-bidaiariak bitakora-kaiera batean eginiko oharrek osatzen dute. Ulisesen etengabeko bidai honen markoan kokaturik, eta Europako hiri literario zaharretatik dabilelarik, poetak bidaiak eginiko edo hiri horiei loturiko beste idazle askoren oihartzunak sumatzen ditu: Joseph Conrad, Franz Kafka, Thomas Stuart Eliot, Dylan Thomas... Baina bere ahots poetikoak Kavafis, W. Holan eta Fernando Pessoai zor die gehiena. Joseba Sarrionandiaren poesiak beste literato askoren literaturaren oihartzuna biltzen du altxoan, baina euskal literaturaren baitan Jon Miranderen sentsibilitatea du hurbilenik, zalantzarik gabe. Behin eta berriro baieztatu dute hau kritiko ezberdinek, 1979-80ko “Maggie indazu kamamila” bezalako narrazioek Miranderen ipuinen giroa ekarri ziguten atzera.

Aitzpea Azkorbebeitiak (*Joseba Sarrionandia. Irakurketa proposamen bat*. Labayru, 1998) oraindainokoan Sarrionandiaren obra osoaren ikuspegirik zabalena eta ondo ehundua argitaratua du, haren ideia poetikoen azterketarako “harrera teoria”ri atxikitako metodologia erabiliz. Liburu honi dagokionez, bere ustez, bidaia liburuaren egituraren bizkarrezurra bada ere, “poesia honen iturburuan dagoen deserrotzearen sentimenduaren ondorioa ere bada.” (70 or.) “Poetak bilaketari ekiten dio, euskal literatura eta kultura lur agorrrak eta panorama desolagarria” gertatzen omen zaizkiolako.

Joseba Sarrionandiak liburuaren sarreran bertan adierazi bezala, “literatura oro literaturaren literatura da”, alegia, tradizio literarioaren oihartzunak islatzen ditu literatura orok. Gero bereziki aztertutako den *Narrazioak* liburuan ere irizpide honi beroni eusten dio Sarrionandiak, eta horretan eredu, maisu edo inspiratzaile dituen Kavafis, Pessoa, Auden eta XX. mendeko beste zenbait poeta handiren iritziko da, Iñaki Aldekoaren ustez: “Gure garaian poesia hoberenak literatur tradiziotik datozkigun isladak nahitaez errefraktatu

behar ditu bere literaturan. Ahaztu gabe, betiere, ironia, poeta edozein tradiziotatik urruntzen duena, tradizio hau errepika ezina bihurtuaz. Hauxe da T.S. Elioten *The Waste Land* eta E. Pound baten tradizioa.” (7 or.)

Jon Kortazarrek argitaraturiko beste bi artikuluko ere aipagarri dira Sarrionandiaren lehenengo liburu honetako erreferentzia literarioen gai honi dagokionez, bata *Idatz & Mintz* (1982, 1, 34 or.) eta bestea *Jakin* aldizkarian (1982, 24 zk, 106-122 or.). Bietan garrantzia berezia ematen die, bi hitzaurreek, liburuaren hitzaurreak eta “bitakora kaiera” izeneko poemak, aditzera ematen duten kontzepzio literarioari, “metaliteratura” edo “metapoesiaren” esparruan kokatzen duela-rik.

Laberintoaren oroimena (Baroja, Donostia, 1939) izenburuaz argitaraturiko saio bilduman Sarrionandiaren lehen poema-liburu honetaz eta hiri horietako bakoitzean omenduriko olerkariaren izenak eman ondoren, zera dio Jon Kortazarrek: “Zentzu honetan Sarrionandiaren poesia metaliteratura da, literaturari buruzko literatura, euskaraz egindako collagea. Sarrionandiarentzat dena esanda dago, geratzen dena beste era batetan esatea da eta horrela bere poesia zertxobait manierista da. Liburuan agertzen den hitzaurrea Joseph Conrad-i egindako omenaldia da: Bitakora kaiera, eta bertan agertzen da haurrek eta poetek duten argitasun horiez liburuaren helburu oinarritzkoak. Bidaia laberinto gisa antolatutako dago eta Sarrionandiaren poesiak heroi erromantikoak sortzen ditu, fantasia ugariarekin batera.” (46 or.)

Eraginei dagokionez, J. Kortazarrek Joseba Sarrionandiaren lehen poema hauek sentimentalismoarekin eta erromantizismoarekin zerikusia dutela deritzo, Ezra Pound eta Yeats poeten obrarekin lotzen du. (139 or.) Liburuaren kontzepzioa anbiziotsua dela esaten du, aberatsa dela, baina metaliteratura egitearen ondoriozko “liburuaren hoztasuna” ere egozten dio. (141 or.)

e) *Estiloaz*

Kortazarrek liburuari darion estilo zaindua, fina eta zuzena azpimarratzen du, kutsu dekadentea eta estetizismoa aipatzen ditu, baina baita tentsiorik eza eta izenburuan agintzen diren “izuen” ausentzia. Halere, 1997ko *Lurra eta lurra*-n matizatu egiten du baieztapen hori, beharbada Sarrionandiaren poesiak garai beretsuko Atxagaren *Etiopia*-ren aldean “leunagoa” eta ikuspegi “idilikoagoa” duela esanez. (74 or.)

Samuel Bekett-ek esan zuen moduan “nothing is left to tell”-ek (ez da esatekorik geratzen) bultzaturiko literatura egiten duen egile gazte honek esan beharrekoak “bestela” esaten jarraitzeko motibazioa aurkitzen du, halere. Hain zuzen ere “bestelako estilo” horixe da Sarrionandiaren irakurleek liburuan gehien estimatu zutena: liburuaren estilo zaindua eta kultura, aldi berean musikalitate nabaria eta leuntasuna edo samurtasuna ere deitu izan denaz ehun-
dua.

Sarrionandiaren estiloak euskal literatura klasikoarengan tinkatzen ditu sustraiak eta Jon Miranderen errefinamendu estetikoarekin moldatua dakar, baina beti erabiltzen du adierazbidetzat Sarrionandiaren beraren ama hizkuntzaren mintzamoldea. Sarrionandiarengana ere heltzen da Verlainez geroztiko agindua: musikalitatea oroz gainetik, esatea merezi duen eta poesiari iradokior zaion horrek belarriari ere atsegina eman behar dio, eta horretarako hitzen hotsaren, perfilen eta adieren armoniak gidaturik osatzen du poetak bere mintzaira hain karakterisitiko hori.

Lanketari dagokionez, artisau gisa egina dela dio Jon Kortazarrek. Bestetik poemetako bakoitzak duen autonomiaz gain, bada batetik besterako tonu-aldaketa bereziki landu bat, musikalitatearen izenean egina, Kortazarren ustez: “Tonuen aldaketa bilatu izanak, teknikak ugaritzera darama liburua. Aberatsa da teknika-arlo honetan: badira poema narratiboak, badira sentimentalak, nostalgia bilatzen dutenak, ideien elkarkidetasunean oinarrituak (20 or.) akumulazioz jokatzen dutenak, hitz-jokoan oinarriturikoak edo koplaz zaharren teknika erabiltzen dutenak. Teknikaren aberastasun honek frogatzen du, nahitaez, idazteko erabili den pausa eta kontua.” (137 or.)

Kortazarrek J. Sarrionandiaren idaztankeraren esparruan bereziki azpimarratzen du hizkera horren jatorria euskal tradizio klasikoarekin konektatu nahia eta Jon Miranderen hizkuntza poetikoaren hausnartze eta sakontze saioa dela. Iturri horiek, ordea, Joseba Sarrionandiaren sentsibilitatearen arragoan hartzen dute moldea. Miranderen eraginari buruzkoa berritzen du hainbat urtetara, *Laberintoaren oroimena* izeneko saio liburuan eta *Lurra eta luma*-koan ere bai: “Joseba Sarrionandia Miranderen itzalpean hazia da: sentsazioen matizazioa hizkuntza kolorista eta zehatz batez espresaturik.” (46 or.)

Bestalde sustraiak Miranderengan dituen hizkera poetiko interesgarri horrek “modernismoak sorturiko hizkera bat” dela esaten du, baina era berean Mirandez gain, “Zuberoako herri kantetan agertzen denak osatzen dute hizkera poetiko honen tonua.” (*Lurra eta Luma*, 73 or.) Hiru alderdi bereizten ditu hizkera horren baitan:

1. Hiztegia. Bereziki euren fonetika alderdiaren musikalitatearen arabera hautatu duela esaten du.

2. Matizazioa joskera mailan nabari da: esaldi nagusi batean adierazirikoa matizatzeraz dator sarritan hurrengo lerroko bigarren esaldi bat.

3. Esaldi egitura baten errepikapenaz baliatzen da sarritan, errepikapenak tonu lasaia ematen dio olerkiari. Adibidetzat aipatzen du 65. orrialdeko “Ulysses Itacara heltzea” izenekoan galderen errepeticioak persuasio indar handia. Edo “Sustraiak han dituenak” izenekoan “nekez uzten du...” eta ezezko esaldien errepikapenak musikalitatea, tonu patxadatsua eta erabakitua ematen diote.

Beraz, Sarrionandiarena erritmo pausatua duen poesia da, musikalitatez ehundua, errepikapenez eta hedapen sintaktikoez, irudietan eta zirkulu zabalagoetan hedatzen dena, uretako ondak bezala zabalduz, ez atzerakorik ez lasterketarik egin gabe.

Azkenik, Sarrionandiaren liburu honen alderdi berezi bat aztertzen du Jon Kortazarrek *Irudien gordelekuetan barrena* artikuluan (*Luma eta lurra*, 77-89 or.). *Izuen Gordelekuetan Barrena*-ren lehen edizioako irudien azterketa egiten du, testuen ondoan argitaratzeko egileak hautaturiko argazki, grabatu eta abarren azterketa, berez “paratestua” izango litzatekeena. Zehaztasunez aztertzen ditu banan-banan irudi horietako bakoitza, azaleko laberintoak, marinel zaharraren grabatuak, Arthur erregearenak, eta amaiera alderako irudi onirikoak, arku eta bobeda hutsek... olerkien testuari eransten dioten profil berriez ohartu eta interpretatzen saiatuz.

2.1.3. Eguberri amarauna (Amnistiaren Aldeko Batzordea, 1983)

Joseba Sarrionandiaren izenperik gabe argitaraturiko preso kolektibo baten bilduman jasoriko poema luzea da. Puerto de Santa Mariatik *Intxaur azal baten barruan* eta *Eguberri amarauna* izenburuz Amnistiaren aldeko Batzordeek argitaraturiko liburua da, 1983an argitaratua.

Lehen zatia, hitz-lauz egindako zigor-ziega bateko prosazko kronika modukoa da, bigarrena aldiz, zatika eginiko poema luze bat da eta hurrengo hitz hauez aurkezten dute hitzaurrean: “Eguberri amarauna delako idazlana, berriz, 1982 eta 1983 arteko Eguberrietan eginikoa da. Hemengo bizimodu arrunteko ahotsak, etsipenak eta desirak poema zatikatu eta luze baten forman jasoaz.” (5. or.)

Eguberri amarauna poemak egitura zatikatua du, 43 zatitan banaturik dago eta 305 lerro ditu. Poemen gainean agertzen den zenbakiak poema osoan zenbatgarren lerroan gauden adierazten digu

eta, bide batez, zenbait poema elkarren artean bereizten. Kandela kolektiboak (*Euskal Letren dantza 1983*, Hordago 1983) dioenez, “poema laburrak ditugu normalean, labur eta zuzenak, koplak bezain motzak gehienak baino askoz ere garratzagoak. Epitafioak bezain garratzak eta askotan txikiagoak.” (34 or.)

Poemaren hasieran F. Holderlinen aipamena egiten da “...baina zertarako egin poesia aro gaitz hauetan” eta poemak hain zuzen ere horren erantzuna bilatzen du, poesia egiten dihardu baina aro gaitz horrekiko kontrajarpena etengabea da, Kandelako komentariogileak dioenez, “modu askotan errepikatuko duen kontrako binomioa ikusten da: batetik kartzelatik kanpo dagoen orok bere baitan biltzen duen “agia-tasuna” (35 or.). Izan ere, kartzelaz kanpoko guztia erreferentzia oroi-mena edo suposizioa baita presoarentzat “gaur ere goiz *ilunduko du!* zohardian izarrak *biztuko* (35 or.) “begira ezazu han goian ilargia/ elkarturik *omen* daude...(36 or.) izarrak suzkoak *omen* dira. (38 or.)

Kartzelako errealitatea presente dago poema guztian, “labankada izoztuen antzera” Kandelako komentariogileak dioenez. Kartzelako errealitateak kanpokoari buruzko amets guztiak errematatzen ditu: “izarrak suzkoak omen dira/baina ez naute berotu.” (38 or.)

Halere, poetaren jarrera itxaropenezkoa da, ironikoa, norabide garbirik ez duela aitortzen duelarik ere: “baina ekin behar da zeren/hobe da burukatu eta galtzea/galera aurrez onartzea baino.” (52 or.)

Joan San Martinek (*Egan*, 1984, 3-4 alea, 156-158 or.) “metaforaz eta kontraesanez” egina dela diosku: “poesia absurdu horietakoa dirudi, ez itxura hutsez, baina egia garratza” (157 or.). Kalitate alde-tik egileak berak hitzaurrean dioen moduan kalitate onekoa ez ote den sujeritzen du baina “gauza berriak esaten ditu Bordelek Donostiako gaztelutik eta Etxahunek galeretatik esan ez bezalakoak.” (158 or.)

2.1.4. *Marinel zaharrak* (Elkar, Donostia, 1987)

1987an argitaratu zuen Sarrionandiak *Marinel zaharrak* izenekoa eta aurreneko obraren, hots *Izuen Gordelekuetan Barrenaren* errebi-sioa izateaz gain, kartzela garaiko eta ihesi joan ondorengo zenbait poemez osaturiko obra da. Kritikoek diotenez, liburu honetan Sarrionandiaren literatura eta militantziaren arteko harremana gogortzeko joera nabarmentzen da, eta jarrera zorrotzagoak hartu dituela erakusten omen du, batez ere “Literatura eta iraultza” (22 or.) izeneko poeman.

Egileak erantsiriko hitzaurrean aipatzen duen moduan, *Izuen gordelekuetan barrena* liburuaren berrargitarapena proposatu bazioten

ere, berak nahiago izan zuen liburu honetan bildu zituen beste bi poema sortarekin harremanetan jarrita argitaratu. Hiru zati ditu eta kronologikoki atzekoz aurrera bilduriko hiru aro ezberdinetako poema sortek osatzen dute *Marinel zaharrak*: ihesi joan ondorengoak aurrena *Tren luze eta bustiak* izenburuaz (1985-86), kartzelakoak *Gartzelako poemak* (1980-85) eta, azkenik, *Izuen gordeleketan barrenatik* hautaturikoak (1978-80). Hitzaurrearen arabera, esan daiteke egileak ordurarte poema adierazgarrienen bilduma egitea zuela asmoz eta “kartzelako kobla eta sonetoak” nahiz *Izkiritaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuko zenbait poema apokrifo besterik ez zituela bereizi *corpus* honetatik. Hautaketaren irizpideak emanak zeuden beraz, eta dioenez, *Izuen gordeleketan barrena* liburutik “orri ugari” aparte uztea erabaki zuen liburu berrian.

Liburuari buruz egunkari eta aldizkarietan aipamen ugariak izan ziren eta horietatik adierazgarrienak jasoko ditugu hemen. Felix Ibargutxik (“Urrutiko parajeetatik hemengo oinazera”, *Zabalik*, 1987-XII-18, 2. or.) iruzkinean aipatzen duen lehenengo gauza *Izuen...* liburutik *Marinel zaharrak* honetara emandako aldaketa handia da, autorea kartzelan bost urte egon eta gero, guztiz bestelakoa dela esanez. Liburuaren estiloak eta gaiak aldatuak direla azaltzen du Ibargutxik: 1978-80ko poemak diren *Izuen gordeleketan barrena*-koan Europako hiriburuetan zehar literaturaz ziharduten poemak ziren, oraingoak errealtate gogoratuz dihardute, kartzelako miseriak esplizitoki azaltzen dituzte, “poeta jaitsi egin da zenbait arazo sozial ukitzera” dio. Sarrionandiak halere, beti eusten omen dio tonu lirikoari, gairik gogorrenek eta krudelenek beti dute ukitu lirikoa.

Liburuaren giltza semiologikoa, gero aipatuko ditugun beste kritikoek bezala, “Literatura eta iraultza” poeman aurkitzen du Ibargutxik: “Eszeptizismoa antzeman daiteke poema horretan, egileak hitzaurreko pasarte batean garbi asko errekonozitzen duen eszeptizismoa: “Ez dakit, gainera, poesiak berak ezertarako balio duen”. Liburuaren tonu etsikor, beltza aipatzen du azkenik: “Sarrionandiak sinbolismo diferente bat landu du, optimismo handirik ez duen sinbologia. Bizitzea bidaiatzea da, baina tren hori infernurantz doa”.

Argiako komentariogileak (“Marinel zaharrak”, *Argia*-II-14, 6-7 or.) ere liburu honen eta aurreko poema liburuaren artean dagoen alde handia azpimarratu zuen, kartzelan bizi izandako esperientzia jotzen zuen horren kausatzat: “...olerkiak egitearen iraunkortasun horren atzean beste egia hau agertzen zaigu nabarmen: bizitza eta poesia ez direla lehengo berberak izango, kartzela, tortura, zapalketa

ezagutu eta gero. Poeta kontenplatzaila zen guk ezagutzen genuen Sarrionandia, poema simetrikoki miragarriak burutzen zituen, inguruaz eta orohar “errealitate” deitu ohi dugun horretaz ezer gutxi arduratu gabe perfekzio formala bilatzen zuena; bien bitartean, bere militantzia beste xendrea batzuetatik bideratzen zuen...”

Poetaren bilakabidean garai hartako gustuak hor irauten dute, gustuko zituen idazleak ditu orain ere alboan, Pessoa, Kafka, Borges, metafisiko inglesak... Halere, “sentsibilitate berri bat erne zaio hauen ondoan, militantziaren eta literaturaren bideak elkarganatu egin zaizkio. Ekintzetan ezik, literaturan ere eman nahi du zapalketaren aurkako erantzuna, nahiz eta literaturgilearen konpromezuari halako urruntasun ironiko batez begiratzen dion”.

Ñaki Inurrietak ere (“Marinel zaharrak”, *Habe*, 1988, 128.al., 29 or.) eboluzio hortaz hitz egiten du Habeko iruzkinean: Sarrionandia ETako militantea, alde batetik, baina bestetik “poeta eskisitoa, zaila, minoritarioa” zela eta binomio horren tentsioa ez zela nabari lehen poema liburuan, ez, harrigarria bada ere, *Ni ez naiz hemengoa* 1985ko saiakeretan ere: “Ene ustez gauza ezberdinak dira arazo honetan politika, etika eta idazkera” zioelarik. 1987an argitaraturiko *Marinel zaharrak* honetan, aldiz, “badirudi planteamendu horiek denak hankaz gora joan zaizkiola, “Literatura eta iraultza” izeneko poeman gure artean hainbat eztabaida sortu duen beste binomio fantastiko bat, —torturaren errealitate ankerraren kontra txirtxilatatu dira esparru sakratuak, Pessoa, Eliot, Chesterton eta beste kutun guztiak.”

Kartzelan zegoela idatziriko *Ni ez naiz hemengoa* liburuak adierazten duen poetikaren pitzadura ematen du aditzera kartzelatik ihesi egin ondorengo poema honek. Halere liburuari hasiera ematen dion “Irakurtzailearentzako abisua” hitzaurreak aditzera ematen du itxaropentsuagoa den oreka berreskuratze saioan ari dela poeta bere baitan: “euskal poesia itsasoaren eta lurraren mugaldeko marinel-ostatu bat legez imajinatu nahi nuke, eta bertan eseri, ezen eta gu —pirata ingeles hark esan zezakeen bezala— tolerantziarako eta taberna batean edateko jaiotzara.” (9 or.)

Susako komentariogileak (“Marinel zaharrak”, *Susa*, 1989, 23-24 alea, 14-15 or.) ere bilakaera hau aipatzen du “Poeta erromantikoko ederzalea, hizkuntzaren barruan jolas egiten zuena, metaliteraturaren gailur urrintan etxeko karrajuan baino nasaia ibiltzen zekiena, hori guztiori eta besterik ere bazen hura bera, berbera lehorrekoago agertzen zaigu hemengo olerkietan. Mingostu egiten du kartzelak. Laztu, latzaren latzaz.” (15. or.)

Iñaki Aldekoak (“Joseba Sarrionandiaren poesia: Itsaso gartzele-
ratua”, *Hegats*, 1989, I. alea, 5-10 or.) liburu honetan sumatzen den
bilakaera aipatzen du, haren ahotsa orain “ahots nekatu eta etsitua”
dela, kartzelaren zama bere gain daramanarena. Bereziki azpima-
rratzen du bere lehen liburutik hautatzen dituen poemen artean egin
duen selekzioa eta berridazketa, “Ez du idazten itsaso zabaletan
zehar nabigatzaile inkonzientek egingo zukeen eran, sufrimenduak
ernarazten duen kontzientzia argitik baizik, alegia, poetak bere gor-
putzean “munduaren epilogo” deitzen duen torturaren urraduren
kontzientziatik.” (8 or.)

Oraingo boza “berrea” dela esaten du Iñaki Aldekoak, eta ez lehen
liburuko poemetakoa bezalakoa. “Ahots desengainatu eta gogorra goa
da, badaki ahots honek zintzo eutsi behar diela bizitza eta memoria-
ri; ezin diola, bere bakardadean, aberri berriak —irakur literatura—
imajinatzeari ekin, zeren ezinbestez, bere nortasunaz eta bere borro-
kaz, hitz batez, bere aberriaz ahaztuko baita.” (8 or.)

Liburuan galderen formulaketaren ugaritasuna aipatzen du Iñaki
Aldekoak, eta Bertold Brecht oihartzuna sumatu uste duela sarri-
tan Sarrionandiaren poemetan. Liburu honetan ironiak edo metalite-
raturak ez duela tokirik izan azpimarratzen du. Euskal poeten arte-
an Lauaxeta eta Aresti hartzen ditu gogoan, atzerritarren artean
aldiz, bera bezala kondenatuak izaniko Maiakovski eta François
Villon. Arestik bezala bere eta bere lagunen bizimoldearen testigantza
ematen duen poesia egiten duela dio Iñaki Aldekoak, “oroimen fla-
kuaren aurka jasotako testigantza” dela liburu, eta ildo beretik
datorrela dio 1988an argitaratu berria zuen *Marginalia* liburu ere.

Antología de la Poesía Vasca/ Euskal Poesiaren Antología (Visor,
Madrid, 1993, 24-25 or.) Iñaki Aldekoak “La poesía militante” izen-
buru pean biltzen ditu Koldo Izagirre eta Joseba Sarrionandia. Jaki-
na, Joseba Sarrionandiaren bigarren liburu da sailkapen honetarako
bidea ematen diona. Liburu honetan egileak autozentsura egin duela
dio “Literatura eta iraultza” poeman ikus daitekeenez, eta Lauaxeta
omendu eta gero, Aresti egiten duela etorkizuneko euskal olerkiaren
buruzagi.

Koldo Izagirre nahiz Joseba Sarrionandiaren poetiketan literatura
burgesa eta traidorearen aurkako eraso dagoela diosku, “cuyo espí-
ritu recoge muy bien aquel poema de Neruda que dice: “Qué hicisteis
vosotros, gidistas, intelectualistas, rilkistas/ misterizantes, falsos, bru-
jos/ existenciales, amapolas/ surrealistas encendidos /en una tumba,
europeizados/ cadáveres de la moda/ pálidas lombrices del queso/
capitalista...” (25 or.)

Aurrerago, Iñaki Aldekoak “El viaje como metáfora de la poesía” titulupean liburu honen izenburuak erreferentzia duela dirudien marinelaren gaiari heltzen dio: “Cuando Sarrionandia escribe su *Marinel Zaharrak*, el poeta es consciente de que, como el viejo marino de la balada, es un condenado, no en vano transcurrieron los años de prisión, donde las múltiples interrogaciones lanzadas por el poeta rebotaron una tras otra contra los muros de la cárcel, revistiéndose con resonancias de Bertold Brecht, Nazim Hikmet o Juan Gelman.” (31 or.)

Jon Kortazarrek ere jasoa du Joseba Sarrionandiaren poetikan gertaturiko bilakaera honen berri. “Konpromezua eta kanpoko literatura” izeneko atalean (*Laberintoaren oroimena*, Baroja, Donostia, 1989 (97-98 or.) eta “Joven poesia vasca. Un acercamiento a la última producción poética”, *Congreso de literatura*, Ed. Castalia, Madrid, 1989, 287-299 or.) Gudaosteko euskal poesiari begirada eman eta honela laburtzen du “inpresionismo joera estetikoetatik jarrera zeharo politikoetaraino etorri ginen, Arestiz gero edukiaren gainetik jartzen den lan lirikoaren kontzeptuak berriro hartzen duelarik indar birsortua.” (97 or.)

Estetika eta konpromezuaren arteko eztabaidak bizirik dirauela dio, eta Sarrionandia eta Omar Navarro joera berri baten eredu direla: “Euskal poesiak bere izaera garatu nahi badu, kanpora begira egon beharko duela erakutsi digute poeta biek. Eta horrela, politika bai ala ez eztabaidaren bi aldeak jartzen dituzte ageritan euren lanean.”() “J. Sarrionandiaren kasua oso esanguratsua da. 1985eko uztailean, kartzelatik ihes egin ondoren, elkarrizketa batean nahiko garbi azaldu du, erabaki eskizofreniko baten urratsa. Militante bizi-tza eta poeta bizitza banatzeko eginkizuna planteatzen zuen elkarrizketa hartan. Gerxeago askoz poesia politikoagoa egin badu ere, ez zen horrela gertatu idazten hasi zenean. Bada poema politikorik, noski, bere *Izuen gordelekuetan barrena* liburuan, baina ez zen hau bere ardatza. J. Sarrionandiak metaliteratura aukeratu zuen bide bezala. Bere lan horrek munduari buruzko ikuspegi kezkatua agertzen zuen poeta erakutsi zigun. Borroka armatuari buruzko poemak irakurrira ere, beti nabaritu zitzaion urrunketa nabaria, berehalakotasunetik urrunketa, bihozpena edo ironiaren bidez lortzen zuena. (...)Bere estilo eta irakurketa mundua Erromantizismo, Sinbolismo, Espresionismo, Surrealismo, Futurismotik Errealismo sozialistatik baino hurbilago dago. Dylan Thomas, Pessoa, Eliot, Kavafisek eragin handia izan dute beragan. Edukiak politikoak izan daitezke liburu honetan baina ikuspegi estetiko eta literarioa da.” (98 or.)

2.1.5. *Gartzelako poemak* (Susa, Iruñea, 1992)

Liburu honi buruzko komentariogileek (Jose Mari Iturraldeek epilogoan, G. Markuletak...) liburuaren garraztasuna azpimarratu dute etengabe, “baltza, latza eta garratza” da, Markuletaren artikulua izenburuko hitzak erabiliz (*El Diario Vasco, Zabalik*, 1992-12-2, 3 or.). Egile honek garraztasun hori kartzelako esperientziaren isla “zuzenegia” izateari egozten diotela aurreratzen du.

Poema horien garraztasuna eta gordintasuna hainbestearainokoa da, ezen obraren literaturtasuna bera jarri izan baita auzitan. Liburuaren aintzin-solasean Ruper Ordorikak gogoratu egiten du “ez zai- gu(la) komeni ahaztea egileak beti edukitzen duela obra helburutzat, sartu bide diren bitarteko guztiak onerako dituela baldin eta xede horrekin bat egiten badute.” (6 or.) Aitzpea Azkorbebeitiak aipatzen du zenbait kritikok poema horien lirikotasuna, literaturtasuna eta indarra azpimarratzen dutela. Sarrionandiaren epe honetako kartzelako poemei, liburu honetakoei eta *Marinel Zaharrak*-en zeudenei, “poesia militante” edo “konprometitua” bezalako etiketak jarri izana Azkorbebeitiak arbuatzen du, aurreiritzietan oinarritzen direlako bere ustez, gaiaren erabilerak obraren asmoa bera ez baitu ukatzen. Lan literarioa “planteamendu ideologiko horren alde egiteko bitartekotzat erabiltzen omen baita eta “konpromezu” horren zerbitzutan jartzen.” (*J.S.Irakurketa proposamen bat*, 76 or.)

2.1.6. *Hnuy Illa Nyha Majah Yahoo (Poemak 1985-95)* (Elkar, Donostia, 1995)

1995eko poema liburu honetan, aurreko *Marinel zaharrak* delakoan bezala, autoreak ordurarteko poemagintzatik hautapen bat egin eta berredizio bat prestatu du poetika berri baten argitan, hots, gai, joera eta sinbolo berrieekin batean egituratuak.

Jose Luis Otamendik “Nora itzuli” (*Argia*, 1.566, 1996-2-25, 45 or.) esaten du “liburua tratatu moral bat” dela, eta, Aitzpea Azkorbebeitiaren ustez, gaiak eta sentimenduak ikuspuntu humanista batek hartuak daude. Aztertzaile hauxe bera da izenburuaren esanahia eta iturria argitzen dituen: “Zaindu ezazu zure burua, lagun” esan nahi omen du, eta Gulliver-en bidaiak liburutik hartua omen da. Jonathan Swuift-en 1726ko liburu honetako laugarren atalean azaltzen da. Berez agur bat omen den esaldi hau, Gulliver-ek zaldien lurraldetik alde egitean moxalak maitasunez berari zuzenduriko esaldia da. Horrek argitzen du, era berean, liburuaren azalean zaldi baten irudia

ezartzea eta zentzu horretan aztertzen du A. Azkorbebeitiak, zabal bezain xeheki, liburuaren edukia, besteak beste, zibilizazioaren zentzugabekeria eta bidegabekeriaren salaketa gisa.

Jon Kortazarrek *Lurra eta Luma* (1997) artikulua bilduman, liburuari eskainirikoan, haren moldaketa berria azpimarratzen du, *Marinel zaharrak* liburutik harturiko materialek, emendatuekin batean egituraturik, taxu berria hartzen dutela diosku. Sarrionandiaren liburuaren irakurleari lehendik ezagun egingo zaizkion sinbolo eta gaiekin batera beste zenbait ere azaltzarekin, bizitza bera da poema hauetan azaltzen dena, bere aniztasun osoan. Alde batetik, tematikak zabal-tzera egin duela esaten du eta adibidetzat aipatzen du lehengo liburuaren heriotzak zentzu ideologikoa bazuen edo omenaldi-poesiak eginen bazituen, oraingoan zabalera jotzen duela poetak, heriotza bera, bere heriotzaz eta hil ondokoaz hausnartzen duela. Bestetik, autobiografiatik aldentzen dela aipatzen du Kortazarrek, egileak oraingoan gaiak bere osotasunean hartu eta lantzen dituela esaten du, ikuspegi zabalagoak hartuz.

Marinel zaharrak liburuan *Izuen gordelekuetan barrena*-ko poemak amaieran kokatuz, kronologian aurretik atzera egin zuen moduan, honako liburu honen moldaketa eta hurrenkera adierazgarria da. *Marinel Zaharrak* liburutik berreskuraturiko poemak bestela multzokatzen ditu *Hnuy illa.. Poemak 1985-1995* honetan, poemaren sorreraren ordena kronologikoa hautsiz eta hasieran nahiz bukaeran kokatuz gartzelako eta ihesi joan osteko poemak. Tartean doaz, berriki diren “Marinel korapiloak”, “Merkatu beltza” eta “Monogamo inperfektoa” atalak.

Eta izan ere, iraganaren, orainaren eta geroaren ardatz kronologikoak ez dira kontzeptu exkluzibitateak beretzat, eta ideia hori aditzera ematera dator liburuaren egitura. Kirmen Uribe *Insula* adizkarian “Asalto a los cielos” izeneko artikuluan egoki adierazi zuen moduan, historiaren kronologia eta progresioaren kontzeptuak ez ditu aintzartat hartzen, T.S. Eliot-ek bezala, “Orainaldia eta iragana biak daude etorkizunean bildurik beharbada, eta etorkizuna berriz iraganen zegoen jadanik.”

Kirmen Uriberen ustez, hauxe da Sarrionandiaren poetika globalaren alderik adierazgarrienetako bat, eta espazialitatearen kontzeptu postmodernoarekin harremanetan jartzen duena. Frederic Jameson aipatuz esaten digu “denbora historikoaren edo existentzialaren une eta espazio ezberdinak ez dutela ardatz kronologikoaren arabera progresio hurrenkerarik onartzen, bakarrik distantziaren arabera neur genezakeen atzera eta aurrerako jauziak eginen dituelarik”.

Espazialitate postmodernoarean kontzeptu horrekin lotuta dago bidaiaren metafora Uriberen hitzetan, eta bidaiaren gaia aldiz, aurreko liburuei buruz hitz egiterakoan etengabe aipaturiko irudia izan da, eta exilioa den bidaiarena da beharbada liburu honetan hartzen duen funtsezko tornua, *Han izanik hemen naiz* liburuari jarraiki. Azkorbebeitiak ere “bizitza erbestea da” zitatzen du eta bat dator J.L. Ota-mendirekin (“Nora itzuli?, *Argia*, 1996, 1.566, 96-II-25)”, esatean poesia liburu honetan “erbesteak kategoria sinbolikoa eta metafisikoa hartzen duela.” (*J.S. Irakurketa proposamen bat*, 84 or.)

Tonuari dagokionez berriz, Sarrionandiaren liburu honetako poemak aurrekoetak bezala, modernismoaren hizketaz sortuak direla diosku Kortazarrek, “bizikizun pertsonalez bilbatuak eta errealis-moz osatuak” (*Lurra eta Luma*, 106 or.). Oraingo poema hauek Bertold Brecht-en poesia gogoratzeri eraman dute, gertakizun objektibo baten narrazioa da korapiloa sarritan eta eszenaren zentzuaren eta barne kontraesanen inguruko hausnarketa hari nagusia.

Poemotan aurki daitezke aurreko liburuetako zenbait irudi eta tematika: heroia eta haren heriotza, exilioa, marinel zaharra, itxaropena eta errebeldia, etorkizuneko herri proiektua, haurtzaroaren eta iraganeko euskal herriaren oroimena... Baina tematika berrien artean maitasuna eta lirikotasuna baloratzen dituzte kritikoeak.

Poesiaren zertarakoa eta zereginari buruzko ikuspuntua aldatuz joan da Sarrionandiaren liburuetan zehar. 1983ko *Eguberrietako amarauna* poeman bertan zertarakoa are gordinagoa zen: “Baina zertarako egin poesia aro gaitz hauetan?” (33 or.). Sarrionandiak ez daki, “baina ekin behar da zeren hobe da burrukatu eta galtzea/ gale-
ra aurrez onartzea baino” (52 or.). 1987ko *Marinel zaharrak* liburu-
ruan ere galdera bera da hitzaurrean “Zertarako poesia hondamen
aro hauetan?” (8 or.). Oraingoan ordea, sasoi guztiak ez ote diren
makalak galdetzen dio bere buruari, haatik ezinbestekoa dela perso-
narentzat kantatzea, itsasontziarentzat nabigatzea bezala. Bere
kasuan, gainera, Coleridgeren marinel zaharrak bezala, inork entzu-
teko trenta handirik hartu nahi ez duen moduko kontuak esan behar
ditu. Aldiz, 1995eko poema sortan gaingitua du, bizitzaren beraren
indarrez, Becketten hastapen gisako hura “nothing is left to tell”-ek
(ez da esatekorik geratzen), metaliteratura ororen abiapuntua izango
zena. 1995ean aldiz, Sarrionandiaren ustez “poemarik behinenak
izkiriatzeko daude...” (*Hnyi illa...Poemak*, 147 or.) “Mezurik sako-
nenak ez dira oraindik esan” (*Hnyi Poemak*, 147 or.). Ez daki orain-
dik poemek zertarako balio duten, ezerk “ez du bermatzen poemok
ezer aldatuko dutenik”: “Ai sasoi makaleko poetok,/ zer eginen

dugu,/ zer irekiko dugu poesiaren/ giltz tipiaz? (*Nuyi illa*, 153 or). Garrantzitsuena da ordea 1995ean baduela xede heldu eta jakin bat: "...ekin dezagun harik eta gure aberri eta/ sasoiaren tankerako hitzak aurkitu arte..." (*Nuyi illa*, 108 or.)

Aitzpea Azkorbebeitia ere bere saio kritiko luzean honela burutzen du literaturaren zereginari buruzko aipamena: "Sarrionandiantzat ezinbestekoa da gizartea nahiz gure herriaren egoera aldatzeko ezinezkotasunaz konsziente izatea eta konsziente izanda aurrera egitea, saiatzea baita garrantzia daukana, saiatuz bizitzea: "Paradisurik ez da, baina saioaren sasoi da" (175 or.) "aberrri leunago baten alde." (82 or.)

2.2. PROSA

2.2.1. Sarrera

Sarrionandiak irakurle arrakastarik handiena arlo honetan izan du, bereziki narraziogintzan, eta *Izuen gordelekuetan barrena*-ren hitzaurrean aitortua zuenez, hauxe da bere burua erosoienik sumatzen zuen literatur generoa. Zalantzarik gabe ipuingintzaren arloan arrakasta ezagutu du egileak, kritikaren nahiz irakurleen onespenez. Horretaz gain "Saiakera eta entsegu" izen orokorraren pean aipatuko ditugu bestalde, *Ni ez naiz hemengoa* (1985) liburuaz gainera, *Marginalia* (1988), *Ez gara gure baitakoak* (1989) *Izeba Mariasunen ipuinak*(1989), *Ainhoari gutunak*(1990) eta *Hitzen ondoeza* (1997) liburuak.

Prosalanen aipamen hau egiterakoan, lehenik, itzulpenak aurkeztuko ditugu, bigarrenik, saio eta entsegu gisakoetara joko dugu, eta azkenik, irakurleen begietan arrakasta gehien eman dion ipuingintzaren arlora.

2.2.2. Itzulpenak: Narrazioa eta Antzerkia

Narratibagintzaren alorrean, *Hamairu ate* (Donostia, Elkar, 1985) Joseba Sarrionandiak eta Mitxel Sarasketak lankidetzan eginitako erdal "umore beltza"ren aukeraketa eta itzulpenak dira. Hamairu istorio labur dira eta ipuin bakoitzaren hasieran itzultzaileak egiten eta obren iruzkin eta aipamenak egiten ditu. Poesian bezala, narratiban ere Sarrionandiarengan Jon Miranderen eragina nabaritu genezake, aurrerago aipatuko ditugun bere lehenengo bi ipuinen estailoan eta taxuan ez ezik, umore beltzeko narrazio hauek itzultzeari

ekin ziolako, zuberotarrak hasitako arloari jarraipena emanez. Bestalde, umore beltzeko ipuinen arloan badira zenbait adibide Sarrionandiaren ipuin originalen artean ere esate baterako, “Ukabilka” ipuina *Ifarraldeko orduak* liburuan (1987).

1985eko urte berean Susa argitaletxearen eskutik argitaratu zen, bestalde, Sarrionandiak eginiko beste itzulpen lan bat *Marinela*. Beragan eragin sakona izan duen Fernando Pessoa poeta portugaldarraren antzerki lana da itzulgaia, eta liburuan hitzaurrean dioenez, “Gatazkarik eta mugimendurik ez dagoen teatro estatikoa da”.

2.2.3. Saiakera eta entsegu liburuak

1985ean argitaratu zuen *Ni ez naiz hemengoa* liburuarekin eman zien hasiera genero ortodoxia aldetik sail bakar batekoak ez diren materialez osaturiko liburuei, saiakera, prosa poetikoa, literatur kritika, eta zenbait saio narratibo batzen dituzten liburuei. Batzuek tankera teorikoagoa dute, beste batzuek, aldiz, praktikan jartzen dituzte beste horietan adierazitako irizpideak: Horixe litzateke *Ni ez naiz hemengoa*-k *Narrazioak* edo *Izuen gordeleketan barrena* liburuekiko duen harremana, edo *Marginaliak Ez gara gure baitakoak*-ekin duena, zenbait kritikoren iritziz.

Saio, saiakera eta literatur entsegu materialez osaturiko liburu hauen artean aipatzen dira honako liburu hauek: *Ni ez naiz hemengoa* (1985), *Marginalia*, edo *Ez gara gure baitakoak* (1989), *Izeba Mariasunen ipuinak* (1989), *Ainhoari gutunak* (1990) eta *Hitzen ondoeza* (1997).

Ni ez naiz hemengoa (Pamiela, Iruñea, 1985) izan da kritikoen aldetik iruzkin gehien merezi izan dituen eta, ia aho batez, Pott Bاندakoen irizpide teorikoen adierazpentzat jo izan dena, bereziki Bernardo Atxagaren *Etiopia* liburuak ezagutzera emandako belaunaldiaren oinarriak aditzera ematen omen dituelako. Nolabait, garai horretan eginiko poesiaren teorizaziotzat hartu dute kritikoez, deserrotzearen eta erbesteratzearen sinboloaren planteamendutzat.

Liburuaren hitzaurrea Txema Larreak egin zuen (13-15 or.) eta liburuaren zedarripena ere eskaintzen digu, zeharka bada ere, “laberintoko egunkaria” dela esanaz. Izan ere, liburuak egunkari batean idatziriko hausnarketa laburren bilduma tankera baitu, egunkari bati dagokiona bezalakoa, eta liburuaren 1985eko edizioaren azalean bi data ageri dira, urtarilak 17 eta uztailak 22, egunkariaren bi mugak zeintzuk diren zehaztuz. “Laberinto”aren sinboloak berriz, liburuak

duen egitura justifikatzen du, beste hainbat iradokizun bideratzeaz gain. Hitzaurrea egiten dion Txema Larreak berak *Ni ez naiz hemengoari* buruzko aipamena argitaratu zuen Pamiela aldizkarian (1985, 9.zb. 10. or.) Eta bertan aurki genezake “jalgibiderik ez duen munduko laberintoa”ri buruzko ohar interesgarria: “Laberintoa aspaldixe dugu Joseba baitan. Oraingoan horren lan gaitza egin ondoren gauza urri hori, pasadizoen egunkari-bilduma argitara duelarik, zilegi bekigu Laberintoaz zuen irudipena plazaratzea. Malcolm Lowryk aztergai hau erraten zuen: “Bada, Malcolm Lowryk bizimodutzat hartzen zuen literatura, baina, jakinik, ez bizitzan bertan, ez literaturako bizitzan, ez duela salbaziorik kausituko. Eta, orduan, literatura erbesteratzearen antzekoa, hots, atzerribide amaigabe bat, laberinto gisakoa, laberintoa non sartzen diren gerlariak, poetak eta beste abenturagileak, amaierarik ez, edota amaieran isiltasuna heriotza eta erotasuna kausitzeko. Laberinto honetan irteerarik ez, bizimodu merkatarira itzultzea salbu, eta irteera hau are eta urriagoa. Hau da, bada, Malcolm Lowryren mundua, edo Laberintoa eta —eta poema batean dioenez— gartzela, zeinetan gauza ederrenei ere funtsezko gabezia eta suntsidura bait darie”.

Laberintoaren oroimena-n Jon Kortazarrek ere, liburuaren zentzu orokorrari atxikirik, euskal poesia berriaren giro honek zuen oinarritzko kontzeptu filosofikoaren adierazletzat ematen du liburu hau, izaeraren ezabaketarena, alegia: “Gaurdaino Pott taldearen poeta eta obrarik gorena Atxaga eta bere *Etiopia* izan badira, teorikoa Sarrionandia gertatu da bere *Ni ez naiz hemengoa* izen profetikoa daraman liburuaren bidez.() Kartzelako egunerokoaren moduan eginik dagoen liburu honetan —halere espetxeaz gutxi eta literaturaz asko mintzatzaren dena— Sarrionandiak bere literaturari oinarria ematen dio, Atxagaren pentsamendua argituz bide batez, Wittgenstein-en erlatibismo kutsuaren ildotik.() Autorearentzat beraz, ez dago objetiboki eskura daitekeen errealitatearik. Subjektibitateak eta erlatibitateak betetzen dute oro.” (69-70 or.)

Joserra Gartzia (“Joseba Sarrionandia: Ni ez naiz hemengoa”, *Literatur gazeta*, 1. alea, 4. or.) iruzkin zabala eskaini dio liburuari. Genero aldetik klasifikagaitza egiten bazaio ere, teoria literarioaz eginiko zenbait saio labur azpimarratzen ditu liburuko alderdirik garrantzitsuentzat, eta literatur lan gutxi batzuk ere badirela gogoratzen du. Nagusi den alderdiari atxikirik, era arinean, askean eta elkarrekiko lotura esturik gabe antolaturiko saio motzak direla esaten du, eta nolabait metaliteraturaren alorrean jarraitzen duela dio *Izuen...* edo *Narrazioak* liburuetan bezalaxe. Oraingoan teorizazioari

atxiki dio, ordea, aurrekoetan praktikari bezala: Literaturgintza era jakin eta zehatz batean egin behar dela uste omen du Sarrionandiak, eta era hori zein den zehazten saiatzen omen da obra honetan.

Liburuan darabiltzan gaiak (euskara, hizkuntza eta kromatismoa, literatura, eta bestelakoak) aipatzean, helburu bat omen du Sarrionandiak, hots, euskal kulturaren osagai tradizionala eta unibertsala dena ezkontzea.

Bestalde, saioei berei dagokienez, gehienak idazle edo filosofo ezagunen aipamenean bat abiapuntutzat hartu eta bere argudioak eta ondorioak adierazten ditu segidan. Literatur piezei dagokienez, berriz, hiru aipatzen ditu Joxerra Gartziak beste guztien gainetik “Euria esan eta euria erortzea” (191 or.), “Ziutateko enparantzak” (201 or.) eta “Laberintoa habitatu” (206 or). Hirurak surrealismo girokoak direla diosku, Kafkaren mundu absurduetatik hurbil daudenak, eta amesgaiztoen logikan oinarrituak.

Anjel Zelaietaren iruzkinak (“Euskal literatura eta gizartea edo Sarrionandiaren “Ni ez naiz hemengoa”, *Jakin*, 1985, api-eka, 35., 119-127 or.) azpimarratu egiten du liburuak duen egunkari egitura: “gau-egunen erritmoan” egina dagoela esaten du, eta testuak autonomoak direla. Bestalde, saio bezala didaktikotasuna dariola esaten digu, beti entzule duen, edo ikasle duen “zu” bati zuzendua dagoela liburua, eta beharbada, kartzelako taldearen irakasle zereginaren testuinguruan ulertzen dela jarrera hau. Literaturari buruzko saioetan Sarrionandiak fabulazioaren poetika egiten duela esaten digu, eta arlo honetan imajinazioaren erreibindikazioa omen da benetan azpimarratzekoa. Bestalde, poesiaren funtzio sozial eskasaz diharduela, galdua duela ohartzen da gaur egun eta gizarte egiturak aldatzeko adina indar ez duela.

Bestalde, mundu ikuskera filosofiko interesgarria ematen omen du aditzera liburu honek, hain zuzen ere laberintoarena. “Lehen errakuntza”ren ondoriozko kaosak munduari zentzurik hartzea galarazten digu; egia deitzen dugun hori, berriz, hipotesirik egokiena besterik ez da. Horregatik, kaosa nagusi den errealtatearen aurrean, poesiak bat-bateko ezagutza intuitiboa besterik ez lezake jaso; halere, “poesiak psikiatriak baino errealtatearen ezagumen handiagoa ematen du, nahiz eta informazio gutxiago, esperientzia zientzia baino egiatiagoa delako, imajinazioa zientzia baino ahaltsuagoa delako.” (141 or.)

Liburuaren balorazioa egitean, bereziki azpimarratzen dituen bi alderdi aipatzen ditu: alde batetik fabulazioari ekiten dihonean dela liburua atseginen, alegia, ezagunak diren ipuinak reinbentatu, berra-

paindu eta birsortzen dituenen, esate baterako “Poema epiko bat izkiriartzen”, “Miletuko dontzeilak” “Tuez-les tous, Dieu reconaître les siens” bezalakoak. Bestalde, kartzelari buruzko pasarteetan ere, amaiertan lortzen duen metaforizazioak pieza literario edo bizikizun gisa “testua salbatzea” lortzen duela diosku “informazio hutsa izate-tik.” (123 or.)

Joan San Martinen (“Joseba Sarrionandia...”, *Egan*, 1986, 3-4 alea, 203-207 or.) iruzkinak liburuaren balorazio orokorra egitera jotzen du. Alde batetik, darabiltzan gaiak askotarikoak izanik, gure mendeko kezak sakontzen, aztertzen eta planteatzen dituela esaten du, baina ez direla saio sakonak aurreratzen du, azaletik eginak, subjektibotasunez beteak direla dio eta hausnarketa sakonak baino gehiago, iradokizunak direla esaten du. Gaiek eta ideiek elkartasunik ez dutenez, “kuriostatez beteriko liburua” dela esaten du baina zehaztasuna eta sakontasuna falta zaiola gehienetan. Iradokizunak ederrak izanda ere, haiei darien sinbologia sakondu gabe uzten du, San Martinen iritziz.

Marginalia (Elkar, Donostia 1988) liburuak Edgar Alan Poeren liburu baten izenburutik hartzen du izena eta hark bezala, genero aldetik sail ugarian banatu beharrekoak izango lirartekeen testuak biltzen ditu. Liburuaren kontrazalean dioenez, 1987an idatziriko saio laburrak biltzen dira liburu honetan, *Argian* argitaratuak zituen “*Bazterrekoak*” izeneko atalak bilduz. Literatura, poesia eta arteari buruzko oharra eta gogoetak izkiriartzen ditu. Gai zerrenda zabala ukitzen du: boterea, iraultza, lengoaia, zapalketa... baina honetan aurrekoetan baino osatuago eta sendoago azaltzen omen da Sarrionandiaren pentsaera. Lopez Gasenik 1993an adierazten duenez, *Marginalia, Ez gara gure baitakoak* (1989) liburuari dagokion beste aurpegia da “gogoeta teorikoen alderdia.” (*Egan*, 1993)

Kritika, erreseina edo iruzkin gutxi jaso ditu liburu honek, lehenengoaren aldean. Aipagarriena *Literatur Gazetan* Felipe Juaristik argitaraturiko artikulua izango genuke garatuena “Poesiaren lekua *Marginalia* liburuari buruz.” (1988, 10 zb, 7-8 or.) Sarrionandiak liburu honetan poetak eta poesiak gizartean duen lekuaz dihardu eta bestalde, liburuiko gaiek hartara ekarririk, modu orokorrean postmodernitateari buruzko hausnarketa luzeak egiten.

Ez gara gure baitakoak (Pamiela, Iruñea 1989) liburua *Argian* honela dator aurkezturik: “Ateraldi, alegia eta erreflexio laburrez osatutako liburua da oraingoa, lehenagoko *Ni ez naiz hemengoa* edo

Marginalia bikotearen bidetik.” (1990-II-27, 62 or.) Halere, aurreko bietan gogoeta solteak nagusi ziren moduan, oraingo honetan “tradizio literariotik zein ahozkotik jasotako istorio edo zertzeladei buelta ematea da gehien maite duen ariketa.” (63 or.)

*Argi*ko artikulugilearen ustez, liburu hau fabulak maite dituenarentzat egina da, eta alegiekin batera ateraldiak ere ugari dira, nahiz eta iritzi emaileak azken hauek liburuaren alderdirik ahulena osatzen dutela uste duen: “ateraldiok umore gutxiko grazia baino haragoko deus ez dutelako.” (63 or.)

Gerardo Markuletak *Zabaliken* bi artikulu idatzi ditu Sarrionandiaren liburu honetaz, lehenengoa 1990-I-31ean “Sarrionandia: samurtasun berreskuratua” izenekoa (3 or.) eta 1990-II-28an “Sarrionandiaren samurra zertan den.” (3 or.)

Lehen artikuluan liburu generoari dagokionez, sailkatzeko dauden zailtasunak aipatzen ditu, ez baita, bere ustez, ez narratiba, ez poesia eta ez saiakera, hiruetatik duelarik halere. Sarrionandiak berak emaniko definiziora jotzea erabakitzen du azkenean “asmakizunak, datziboak, haur ipuinen perbersioak, moebius zintak, paradoxak, penny dreadfuls, ametsak, laburmetraiak, gogoeta solteak eta beste botoi galduak.”

Gerardo Markuletaren ustez, liburu poeta baten egunkaririk harturiko harribitxien antologia modura antolaturik dago: irakurketa harira, gogoeta zabalago baten barnean edota egunerokotasunaren lokatzen artean sortutako txinparta bat-batekoak jaso, arnas poetikoaren iragazitik pasa eta bere hizketa poetikoaren fineziaz adierazi.

Sarrionandiak, gure errealitate kulturalaren beste aldean dabil aztarrika. “Zeharo onarturik ditugun errito, jokaera eta ikusmoldeei buelta ematen saiatzen da, ironia, alegoria, pastiche eta bere literatur ezagutzak eskaintzen dizkion baliabide anitzen bidez.”

Gerardo Markuletaren ustez liburu honetan Sarrionandiak samurtasuna berreskuratzen du, 1987ko *Marinel zaharrak* liburuko garraztasuna eta mingostasuna alde batera utzita. Aipaturiko bigarren artikuluan zehaztu egiten du samurtasuneranzko itzuli horren zentzua: Sarrionandiaren *Marinel zaharrak* liburuaren aipamena egitean zera azpimarratzen du “Bai lehen liburuko poemak aukeratzeko; bai berauetan eginiko aldaketetan; bai poema berrien egituraketa kaskarragoa eta hizkerarekiko arreta txikiagoan; bai berauetako askoren tonu mikatz eta garratzean, askok kartzelako esperentziaren islapen zuzenegia (gutziz ulergarria baina gure usteetan lan poetikoarentzat kaltegarri suertatzen zena) sumatu genuen, baita nolabaiteko desbiderapena arestiko poetikaz ere.” (3 or.) Horre-

gatik da, bada, bere ustez, oraingo liburu hau Sarrionandiaren samurtasunaren berreskuraketa.

Ainhoari gutunak (Elkar, Donostia, 1990). Ihes egin zuen urtean gorderik egondako etxekoan alaba txikiari zuzenduriko gutunak dira. Neskak hori irakurle eredu baten sinbolo da “Aita edo ama presondegi urrunen batean zergatik daukaten apenas ulertzen duen haurrari; edota izeba edo neba aspaldian non dauden ez dakienari Ainhoa deitzen diot: (...) Gure gerlako haurrari izkiriatu nahi diot”. Hauexa da autoreak hitzaurrean ematen duen azalpena.

Hogeita zortzi gutun hauek ipuinak, eguneroko gertakizunak, burutapenak, gustuko liburu eta filmeei buruzko iritziak eta gogoeta hainbat biltzen dituzte. Batzuk poesiaz beteak daude, beste batzuk prosaikoagoak dira, baina maitasun sentimendua darie gehienei, herrimina eta nostalgia.

Ainhoari gutunak liburuari buruzko zenbait aipamen periodistiko, erreseina edo aipamen aurki litezke. Edorta Jimenezek (“Ereduak” izenburuaz *Zabalik*-en 1990-XX-22, 25 or.) aipamen laburra egiten du, esanez, gutun erara idatziriko lantxo hauetan beste zenbait liburutan erabiliriko gai berberak direla funtsean: irakurritako ipuinak, ikusitako filmak, filosofia, umetako jokoak eta abar. Berez helduentzako aproposago ez ote den esaten du, edo hauei gaztetxoei baino gehiago ez ote zaien gustatuko. Bereziki azpimarratzen du “Ereduak” izeneko ataltzua, didaktikoa baderitzo ere, nola idatzi behar den eredu ezin hobea eskaintzen duela esanez.

Han izanik hona naiz (Elkar, Donostia, 1992) narrazio eta beste-lako testu epigramatikoak tartekatuz eginiko liburu bat da genero hibrido honetan sailkatzeko zioa ematen duelarik. Aipamen edo kritika gutxi jaso ditu, horien artean, Gerardo Markuleta (“Deserriko eruditoen jolas berriak”, *Zabalik, Diario Vasco*, 1993-1-6) eta Manu Lopez Gaseni-rena (“Joseba Sarrionandiaren *Han izanik hona naiz* (Elkar 1992)”, *Egan*, 1993-1, Donostia, 251 or.)

Lehenengoaren ustez, jadanik *Ez gara gure baitakoak* liburuan teorikoki garaturikoaren alderdi praktikoa da prosa zati txikiez osaturiko liburu hau. Hitz joko paradoxikoa hautatu du egileak izenburutzat, berez XVII. mendeko euskal idazle baten liburutik harturiko atsotitza dena. Lopez Gasenik dioenez, istorio guztietan zehar noiz-behinka errepikaturik agertzen da esaera hau “batasun ia erlijiosoa ematen diolarik liburu osoari”. Arnaut Oihenartek *Atsotitz edo erre-frauak* bilduman jasoriko *Han izanik hona naiz* esaera ilunaren azal-

pena euskal idazle hark azaltzen zuen modura, bi txoriren arteko elkarrizketa egoeran kokaturik ulertu behar da: “Txori batek, bere habia epelean dagoela, heldu berria den beste txori bati emandako erantzuna da, heldu berriak Orhi aldean eguzkiak bero jotzen duela eta hara joateko gonbitea luzatzen dio; kabi epelean dagoen txoriak, aldiz, iruzurra sumatzen du eta ezetz erantzuten dio “han izanik hona naiz” esanez. Alegia, Orhi aldean izana dela eta han berorik ez zuela ikusirik, bere habiara itzulia dela. Gerardo Markuletaren ustez, ordea, izenburuaren jatorria hori bada ere, izenburuan esaldiak beste esanahi bat hartzen du, hitz jolasa eginez, erbesteratuen paradoxa adieraziz, han egonik ere hemen daudela nolabait.

Gerardo Markuletak liburu honek izan bide dituen iturrien aipamena jasotzen du bere erreseinan “Ereduen artean Hegoameriketako narratzaile “laburrak” aipatuko nituzke nik, Augusto Monterroso batez ere, baina baita Eduardo Galeano, Mario Benedetti eta Julio Cortazar. Ironia zorrotzari dagokionean, Ambrose Bierce eta H.J. Mencke gogoratzen zaizkit orain.”

Gaiaren aldetik zedarritzerakoan zera dio “Alegi gaiztoak, datu historikoen gaineko jolasak, ipuintxo harrigarriak, kontu zaharren eraberriketak”. Aurreko liburuetan bezala Sarrionandiaren interesen esparrua zabala dela erakusten du: literatura, kritika, politika, historia, zientzia eta abar.

Lopez Gasenik ere liburu honetako gaiak eta aurreko beste “saio” liburuetakoak jartzen ditu harremanetan; Sarrionandiaren beste konstante batzuk ageri dira han hemenka: literatura unibertsaleko mitoak iraultzeko desioa (“Ekibokazioa”, literaturaren iturri garbienetara ere ironiaren herdoila eramateko gogoa (“Hamelingo xirularia”, “Belle au bois dormant”); idazteko ekintza borondatezkoak munduan den askatasunik handiena ematen diola probatzeko nahia (“Maitasunari buruz”). Bigarren atal nagusia euskal kausarekiko konpromezuarekin zerikusia duten gaiak leudeke: “Hazparne 1893”/ “Hazparne 1987” bi istorioak, “Tortura”, “Euskal amen aienak”... Hirugarren multzo nagusi bat euskal literaturaren arloko gaiak osatzen dutela dio Lopez Gasenik, non bere zaletasunak eta etsaigoak azaltzen dituen.

Obra honetan egileak erakusten duen talaiari dagokionez, G. Markuletaren iritziz, beti bezain zorrotz dihardu zientziari dagokionez, baina jarrera jostalaria, ironikoa, alderdi harrigarri eta uste gabekoren bila dabilena da. Talai horren adierazgarri egokienak “Ekibokazioa” deritzana eta liburuko izenburu bera daramanaz batera, “Haireak eraman dezala” delakoak dira. Lopez Gaseniren iritziz, liburu honetako Sarrionandiaren literaturan “negu gorri askoren euri eta

haizeek herdoildutako literatura, jadanik sekula xaloa izango ez den jarduera literarioa ikusten da nahitaez”.

Liburu honetan autorearen aldartea eta taxua *Marinel zaharrak*-en ageri dena ez bezalakoa dela dio G. Markuletak, hura gogorra eta gozakaitza bezain atsegina eta irakurleari gozamina eskaintzekoa dela esaten du honako hau. Azkenik, obra honen egilea definitzen du “irakurle amorratu” “jakin min handiko intelektual” eta “inkonformista erradikal bat” dela esanez.

Sarrionandiak testu guztiz labur epigramatikoez osaturiko liburu honetan, aurrekoetan bezala, erreferentzia pribatu ugari sarrarazten ditu, Lopez Gasenik dioenez, “lagunei dedikatutako zenbait pasarte dezifratzeko giltza zein den ezin jakin dezakegularik” irakurle gehienok.

Hitzen ondoeza (Txalaparta, Tafalla, 1997). Atal honetan aipatzen ari diren genero aldetik sailkagaitz gertatzen diren artean berriena dugun hau hiztegi baten modura eratua dago eta tankera ezberdineko osagaiez taitutua. Hiztegi baten tankera du, baina ez da “hiztegia baka-rrik, ipuin laburrak, saio tipi ugariz osatzen da” egileak berak dioenez, “eta aforismoz, eta munduaren lau partetako ene auzokoen aipuek hornitzen dutela”. Osagai ezberdin horien elkartzetik sortzen dena sorpresa da ordea: “Beraz eman dezagun, nobela luzea dela”. Autoreak generoaren gaiari buruzkoan duen ironia jarrera da ziurrenik, edo kritikoe-
ek nahiz mundu editorialak nobela luzeekiko duten erabateko estimazio eta errespetuari eginiko irrijorra sarkastikoa.

Egileak zati, mezu eta tankera ezberdineko testu hauek eskaintzen dizkio irakurleari baina erdiesanean, edo “gehiesan” modura, irakurle-
lea bera izan dadin benetako gogoeta egiten duena.

Liburua egiterakoan egileak hitzak aintzat hartzeko premia sentitzen duela dio, oraindik munduko gauzak izenda daitezkeela sineste-
teko. Izan ere Sarrionandiak liburu honen xede eta ilusio handia zera omen du egileak berak dioenez: “mintzairak oraindik balio duela eta munduko gauzak hobetu daitezkeela” sinetsi nahi du.

2.2.4. Ipuingintza

Joseba Sarrionandiaren ibilbide narratiboari lehen bi ipuin sarituk ematen diote hasiera: 1980ko *Xaguxarra* aldizkariaren lehen alean argitaratu zen “Maggie indazu kamamila” (Arabako Diputazioaren “IX Ignacio Aldecoa” saria 1980an) eta *Pott* aldizkarian argitaraturiko “Enperadore eroa” (Bilboko Udalaren “I Ciudad de Bilbao” saria).

1983an argitaratu ziren oso tankera ezberdineko bi idazlan, aurrerago zehatzago aipatuko dugun *Narrazioak* eta *Intxaur azal baten barruan*. Lehenak salmenta eta difusio handia izan du, bigarrena aldiz, ezezagunagoa da. Gaiak guztiz ezberdinak dira, lehen literatura fantastikoa da, ipuin bilduma modura egituraturik. Bigarrena aldiz, autoreak bizi duen egoera erreal eta jakin baten azalpena egiten du, kronika bat da, zigor-ziega batean eginiko boladaren kronika zehatza eta esplizittoa, baina literarioa era berean. Izenburua kartzela aldi horretan eskuartean darabilen Shakespeareren Hamlet-en esaera baten zatia da: “Intxaur azal baten barruan ere espazio amaigabeen erregetzat nengoke, amets goibel hauek ez banitu” erantzuten du lagunak esaten dionean Danimarkari kartzela deritzola bere asmoak soberazkoak direlako. Barrena goibel ez baleuka, ez luke espazio handiaren beharrik eroso egoteko. Kartzela ez da espazio kontua. Presoaren barrena da arazoa antza.

Puerto de Santa Marian zegoela idatziriko *Intxaur baten azalean* izeneko prosa lanak zenbait aipamen jaso zituen garaiko egunkari eta aldizkarietan: Joan San Martinek (*Egan*, 1984, 3-4, 156-158 or.) honela definitu zuen: “hitz-laxozkoa, sekuentziaz osatzen da, gogoeztazko bakarriketatik zeldatik zeldarako elkarrizketak eta, tarteka, eskuetan duen liburu bakarraz mintzatuko da, Shakespeareren Hamlet, bertako pertsonaiak solas partaide direla. Presondegiko giroa dakar, abertzale iraultzaile batzuen inguruan. Libertaterik eza, berez oinazezkoa bada ere, han funtzionarioek presoek egiten dien gudu psikologikoa ez da hobe.” (156-157 or.)

Susako komentariogileak (*Susa*, 1989, 23-24, 7-8 orr.) narrazio honetan Sarrionandiak darabiltzan osagaiak jasotzen ditu, baloraziorik egin gabe: “Hamlet irakurtzen segitu, zeldarik zelda airean gurutzatzen diren elkarrizketak, oroitzapenak, haurtzarora, kontzientziaren ernalgarria izan zen Burgosko epaiketa, armetako borroka... Iragana eta oraina, fikzioa eta gertaerak, kanpoa eta barrua, literaturan errealtate gorapilotsu eta konplexuaren islada dena taiutzea lortzen du.” (5. or.)

Narrazioak (Elkar, Donostia, 1983). *Narrazioak* liburuarekin hasi ziren Sarrionandiaren ipuin edo narrazio labor autonomo deritzenak hamarnaka argitaratzeko moldea. Narrazioak edo ipuinak hamarnaka bildurik eta amaiera aldera oharrez horniturik argitaratu ditu, lehenengo honetan ezezik, *Atabala eta euria* eta *Ifarraldeko orduak* bildumetan.

Liburu hauetako narrazioak solteak dira, elkarrekin loturarik gabek, baina ez da beste gabeko gehikuntza formula hutsez eginiko

egitura, berariaz egina baizik. Honezkero jakinaren gainean gaude, Sarrionandiaren obretan dena dagoela, zentzu batean ala bestean, literaturaren zerbitzutan pentsatua. Liburu hauen egiturari eta bere ipuingintzari buruzko “azalpenak” *Ifarraldeko orduak* liburuaren azken narrazioan eman zituen nolabait, zeharka ordurarte euskal kritikoei bere liburuez esanikoak ironikoki aipatuz: “hamar narrazio ezberdinez osatzen da. Duela guti euskal kritiko batek izkiriatu du ipuin liburuei gai eta egitura batasuna eskatu behar zaiela, aurreiritzi absurdua ezarriaz. Martin Lezetak libururako narrazio gaiz eta egituraz apropos desberdinak moldatu zituelarik ipuinen batasuna bere idazkerak eta, modurik definitiboenean, irakurketak eginen zutela ondo zekien.” (114 or.)

Ondoren, egitura horren errekursibitatearen aipamena egiten du joko “Borgestar” bat eginez: autore apokrifo baten, Martin Lezetaren “Oroimena eta desioa” izeneko testuan. Autore apokrifoaren obra apokrifo baten aipamen luzea egiten da, datu piloa ematen du inoiz izan ez den autore honi buruz, sinesgarria egiteraino. Liburu horren aipamena egiterakoan, kritikatu eta baloratu egiten du egilearen eginahala eta fruituaren arteko harremana. Sarrionandiak inoiz idaztea sinesgarri litzatekeen testuak dira berez, tankeraz, aipatzen dituen autorengatik, erabiltzen dituen gaien taxuarengatik, baina ez dira idatziak dituen liburu horretakoan aipamen zuzentzat jo behar. Zehaztasunak, izenburu eta data zertzeladak emanez, sinesgarria den entorno literario bat sortu nahi du. Dena joko bat da, ordea, azken narrazio horretaraino iristeko. Hor dator Sarrionandiaren benetako kontraizeinua joko horretan guztian: Egileak bere desioak bultzaturik idazten omen du eta “desiraren hutsunea” oroimenaz estaltzen saiatzen da, “baina zuloa, zuritasuna, eskasia, zuloa, literaturak bete dezakeena baino arraz zabalagoa eta sakonagoa da. Orduan ia dena isuri, erori, galdu egiten da. Adierazgarria da, horretaz, Martin Lezetaren Oroimena eta desira liburuko azken narrazioa hamar ipuineko beste liburu baten komentarioa delarik, aipatzen den azken ipuina bera ere hamar narratiodun beste liburu baten erreseina izatea...” (*Ifarraldeko orduak*, 116-117 or.)

Beharbada *Narrazioak* liburu honexen izenburua da Sarrionandiaren liburuaren izenburuen artean sinpleena, beste guztiak interpretazioa behar duten sintagmak izan dira edo azalpena eskatzen duten hitz multzoak, baina kasu honetan, agian, sinpletasunak omenaldi bat du barnean. Agian Jorge Luis Borges ipuinen bilduma baten *Narraciones* (Cátedra 1980) edizioaren izen bera darama Joseba Sarrionandiaren *Narrazioak* liburu honek. Marcos Ricardo Barnatá-

nek eginiko edizio hark bezala, J. Sarrionandiak tankera ezberdineko narrazioen bilduma osatu zuen, oharrez horniturik. Baliteke izenburu antzekotasuna liburuaren barruan dauden Borgesi eginiko omenaldietako bat gehiago izatea.

Liburu honetaz mintzatu diren kritiko guztiek¹, nahiz argitaratu zen unekoek, nahiz 1994 urtean *Hegats* aldizkarian irakurketa berregin duen Aingeru Epaltzak, Sarrionandiaren liburu honen arrakasta izugarria azpimarratzen dute, eta horrek kritikoari ezinbestez inposatzen dion errespetua.

Liburuaren arrakasta liburuaren kalitate maila onari egozten diote kritiko gehienek. Zenbaitzuk, ordea, berezko kalitateak arrakasta handi hau ez duela halere erabat justifikatzen erasten dute, beste zenbait literatur obra kalitatezko izanda ere ez baitira horregatik, beste gabe, arrakasta komertzialak bihurtu. Kritiko batek baino gehiagok esan izan du zerikusirik baduela autore honek duen arrakastan bere nortasun ez-literarioak ere. Nolanahi ere, irakurle arruntarentzat Sarrionandiaren narrazio hauek beste gabeko erakargarritasuna dute, mundu fantastikoak sortzen ditu ipuinertako batzuetan, leiendazkoak sarritan, sirenak eta marinela zahar madarikatuak daude, eta desertuak, printzesak, gazteluak eta geltokiak neskakta eder bakartiek habitatzen dituzte. Guztia ere, gainera, estilo narratibo poetikoaz eta dotoreaz emanik.

Bestalde, literaturzaleak liburuan zehar entzungo dituen behin eta berriko oihartzun edo erreferentzia literarioen atsegintasuna gozatuz batera, ate-osteko oharren bidez osatu ahal izango du bere literatur intuizioa. Bestela esanda, arrazoi ez-literarioek baliteke, baina bereziki arrazoi literarioek azaltzen dute beste gabe liburuaren argitalpen ugaritasuna eta irakurleen zaletasuna.

Esan bezala liburuaren egitura hamar narraziok osatzen dute, luzera, taxuera eta gai ezberdinekoak dira. Amaieran, Sarrionandiak berak erantsiriko oharrak ikus daitezke, berak dioen moduan “irakurlearentzat erreferentzia literarioen azalpen gisa” erantsiak. Azkenik, aldiz, Bernardo Atxagak POTT bandaren kide ziren garaietako idazle lagunaren arteko konplizitatea agertu alde Jean Baptiste Hargous

¹ “Joseba Sarrionandia. Narrazioak”, *Argia*, 1984-I-14, 4 or.; XX “Narrazioak”, *Susa*, 1989, 23-24 alea, 8-9 or.; XX. “Sarrionandiaren Narrazioak”, *Euskal letren dantzia 1983*, Kandela, 1985, Hordago, 83-88 or.; Aingeru Epaltza, “Narrazioak”, *Hegats*, 1994, 8. zenbakia, urtarrila, 19-26 or.; Jon Kortazar, *Reduccions*, 1984, 22, 94-95 or.; Jon Kortazar, “Gaurko narratiba eta euskal literatura”, *Jakin*, 1982, 25, 86-93 or.

ipuinaz ixten du liburua azken orrialdean liburuaren irakurkera bat ere proposatzen duelarik.

Kritikoez liburu honetako narrazioen gaien alderdi nabarmenak aipatu dituzte: fantasiarako eta iraganaldiko leiendetarako zaletasun hori: Susako kritikoak (“Narrazioak”, *Susa*, 1989, 23-24 alea, 8-9 or.) zera dio liburu honetako gaiei buruz: “Mundu ederrak eraikitzen laguntzekoa da hizkera hori (sirenak, marinel zaharra, geltoki desertuak, printzesak, e.a.) bai, egunetik nahikoa urrun dagoen heinean.” (9 or.) Iñigo Kaminok ere (“Joseba Sarrionandia. Narrazioak”, *Argia*, 1984-I-14, 4 or) bide beretik jotzen du: “Josebak bere ipuinetan aldi iraganetara labaintzeko joera dauka, () Baditu lehen aldian kokatutako ipuin horietan giro zahar preziosistak, mundu geldo fantastikoa (aspaldiko ipuinetako marfilezko objektuak, neska ederrak, petrikilo misterioitsuak, agure jakintsuak...)”. Beraz, hona hemen zalantzarik gabe Sarrionandiaren ipuinen artean erakargarriena gertatu den ipuin mota.

Bestelakoen artean, aldiz, hots literaturaz eta idazleaz diharduen “Itzalarekin solasean” azpimarratu izan da autorearen ideia literario nagusien adierazpentzat. Aingeru Epaltzak (“Narrazioak”, *Hegats*, 1994, 8. zenbakia, urtarrila, 19-26 or.) idazlearen manifestua dela dio, Kandelako kritikoak (“Sarrionandiaren Narrazioak”, *Euskal letren dantza 1983*, Kandela, 1985, Hordago, 83-88 or.) ipuin horretan aurkitzen dela autorearen tematika ezberdin, bariatatu, fantastikoa eta zenbaitetan harrigarriaren funtsa.

Bereziki aipatu beharrekoa da, beraz, “Itzalarekin solasean” kritikoen iritziz, idazleak bere ofizioaz eta bere poetikaz eginiko hausnarketak delarik. 1983ko Sarrionandia idazleari ez zaio errealitatea bera aditzera ematea helburu interesgarria iruditzen, ez eta guztiz ederra edo dramatikoa bada ere. Kazetariak eta fotografoak eman lezakete errealitate objektiboaren berri idazle artisauak baino hobeto (85-86 orr.). Ez da hori idazlearen jomuga, idazleak “gauzen bihotzetara hurbildu” nahi du:

“Ene asmoak haruntzagokoak dira, halako egoera baten testimonioa ematea, misterio eta posibilitateen eremuetara sartzea, euskal lengoia urri hau adierazbide egitea, gauzen abardura poetiko ezkutuak azaltzen entseiatzea, eta honelakoak.” (42 or.)

Berriro entzuten da hor Lauaxetaren boza offean bezala, *Izuen gordelekuetan barrena* liburuko hitzaurrearen oihartzuna balitz legez, hizkuntzaren beraren zerbitzutan adina ari baita, errealitatearen

mugetan bilaketan eta sorkuntza literarioaren zerbitzutan: “Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotxak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten ezdaben egal-otsa neure gelara yatorrt eta barneko zugatz onettatik txorijak aidatu ziranarren, abar dardarea ezta amattu. Neurez betirarte ixilduko nintzan, barruko ixurpen oneintzat ezpaitago azal ederrik. Euzkeraz batez-be! Erabilijak. ixan diran izkuntzak bost jarrai-bide erakutsi dagiskegubez, baña ele onen iruliak gerau gara.” (*Olerkiak*, Erein, 119 or.)

Omenaldia Borges-entzat eta izpiritua Lauaxetarena badira ere, Fernando Pessoa, Konstantino Kavafis, Marcel Schow eta bestelako autoreen obretatik harturiko gaiak aurkitzen dira Sarrionandiaren narrazioetan. Partaide izan zen POTT bandakoan, Bernardo Atxaga, Manu Erzilla, Josemari Iturralde edo Jon Juaristekin batean izandako hiru urteko bizikizun literarioaren ondarea du hori. Horregatik, liburuaren epilogoan Bernardo Atxagak idatzirik ipuinean Marcel Schowren *La cruzada de los niños* liburuaren oihartzunak sumatzen dira, eta, nolabait esatearren, lagunari eginiko begi-keinua bezala da epilogo hori, Sarrionandiaren liburuko *Durango heresia*-ri, liburua ixten duen narrazioari, kontrapuntua ematera datorrena.

Gehienbat ipuin fantastiko fatal erakargarriez osaturiko liburua dugu *Narrazioak*: Arthur erregearen istorioak, edo Coleridgeren *Marinel zaharraren balada*-ren bertsioa, edo Herman Melvilleren “Las Encantadas” narrazioaren oihartzunak jasotzen dira liburuko ipuinetan. Hor dago, era berean, “Mezurik gabeko eriotza”, William Faulknerren “The sound and the Fury” nobelaren oihartzunez beteriko aztikeria ipuin bat ere, Martintxo, atzeratua den haur hazi baten ikuspuntutik kontaturiko narrazio bat. Garbi dago egileak “libururako narrazio gaiz eta egituraz apropos desberdinak moldatu zituela.” (*Ifar aldeko orduak*, 114 or.)

Gai arturikoak *Narrazioak* liburuaren hurrengo ipuin kolekzioetan ere agertzen dira, eta liburu honetan tematika ezagunaren eta protagonista literario legendario horien inguruko gertaerak testuinguru gisa erabiltzen ditu une eta egoera partikularrak aurkezteko. Poesiaz hitz egiterakoan aipatu dugun metaliteraturaren erabileraren adibiderik egokiena bilakatzen dira, ez baitu egileak gai arturikoen bertsioak eginez giro heroikoak berreraikitzeke asmorik, berez aurkako zentzuan erabilia daude. Jose Luis Mendozak (*Pamiela*, “En el principio fue el mito”, 9.or.) narrazio arturiko hauen erabileraz idatzi zuen moduan: “la literatura novelesca ha creado un espejismo fascinante y su nostálgica atracción viene doblada por su irrealidad.” Sarrionandiarentzat aldiz, mundu heroiko eta legendario hori nostalgia, desesperantza oro-

ren marko egoki bihurtzen da, iraganaren edo erreferentzia heroikoen ezinezkotasuna azpimarratzeko erabil baitezake eta amaieren fataltasun ezaguna eta aldatu ezina nabarmenago egiten dutenez.

1983ko *Narrazioak*-ez geroztik beste bi narrazio liburu argitaratu ditu Sarrionandiak: *Atabala eta euria* 1986an eta *Ifarraldeko orduak* (1990).

Atabala eta euria (Elkar, Donostia, 1986). Hamar ipuin dira aurreko liburua bezala liburu honetan jasotakoak, eta amaieran “*post scriptum*” gisako ohartxo literarioez horniturik argitaratzen du. Kritiko gehienen iritziz liburu hau *Narrazioak* liburuaren jarraipena da, egiturari, estiloari nahiz tematikari dagokionez.

Iruzkin literario gutxiago izan du liburu honek. Horietako bat, J.R. Zabalaren iruzkina da (*Mundaiz*, 1987,33, Urtarrila-Ekaina). Erreseinaren egileak liburu hau *Narrazioak* liburuarekin lotzen du, egitura nahiz gaiari dagokionez. Edukin fantastikoa duten istorioak direla esaten du, eta ezaugarri hau garai legendarioetan nahiz gaurko egunean kokaturiko lotura-modua dela azpimarratzen du. Ipuinak Arthur erregearen garaikoak, Greziako trajerien garaian edo gaur egun koka litezkeela dio, baina hauetako askotan egunerokotasuna dimensio irrealitatean azaltzen zaigula esaten du. “Ipuin fantastikoetan ohizko diren elementu liluragarriak aurkitzen ditugu, irrealitatearen auraz.” (265 or.)

Bestalde, Sarrionandiaren ipuinen iturriak zein nabariak diren aipatzen du, eta gainera autoreak berak eransten dituen oharretan azaldu egiten dituela esaten digu, kultura handiko irakurle dela erakutsiz eta ezertan iruzur egiteko asmorik ez duela.

Jose Ramon Zabalaren ustez, Sarrionandiak ipuingintzaren arloan ongi merezia du ospea, narrazioak borobil egituratzeko dohaina du, hizkuntzarekiko maisutasuna du eta azkenik, “egilearena berarena den tonua edo gauzak esateko modua edo literatur estilo nahastezinenaren jabe da”.

Ifarraldeko orduak (Elkar, Donostia, 1990). Aurreko bi ipuin bildumak bezala, hamar narrazioz osaturik dago. Hamargarrena bere ipuingintzaren inguruko testu bat da eta, dagoeneko aipatu dugunez, idazle apokrifo baten obra hipotetiko baten bidez hitz egiten du. Sarrionandiak liburu honetan bildu dituen ipuinek zerikusi tematikoa badute aurreko bi ipuin bildumetakoekin: iragana, mitoak, leienda eta abarrez mintzatzen jarraitzen du, baina euskal historiaren iraganaldiko une erreal batzuetara ere egiten du Matalasen garaietara, guda zibilaren garaietara, Etxepareren garaietara...

Ipuin sortari buruzko kazetari oharrei begiratuz, aldiz, Joxean Muñoz (“Ifar aldeko orduak”, *Habe*, 1990, 177 alea, 29 or.) bere erreseinan, hamar ipuinok euren dibertsitatearen azpitik zer duten komunik bilatzen saiatzen da, eta bere ustez, batasun hori euren mamian, giro minberaz, “lekuz beste egin beharra”z mintzatzen da egilea: “Norberaren sorterritik, etxetik eta haurtzarotik, senide, adiskide eta burkideengandik edo norberaren baitatik lekuz beste egin beharra edo egin behar izana darabilte airean ipar aldeko ipuin hauek. Aitzakiaz, gaiez, garaiz eta lekuz arras desberdin izan arren, giroan, irakurlearengan utzi duten gogo-giroan badute batasuna.”

Argia-n “Trajedien kronika klabe minorrean” (1990-V-20, 63 or.) artikulua argitaraturiko komentariogileak dioenez, idazle zintzoaren irizpideari lotzen zaio beti Sarrionandia, beti zerbait berria entseatzeko du liburu bakoitzean. Argiako komentariogileak dionez, *Ifar aldeko orduak* liburuan kronistaren papera bereganatzen du Sarrionandiak “Trajedien kronika egiten duela esango nuke nik. Trajediak zentzu epikoan ulertuta ezezik, baita zentzu indibidualean ere: gerra eta erbestearen sufrimendurekin batera, eskizofreniaren erretratua edota amodioaren fatalitatea ageri dira ipuinotan.” (63 or.)

Argiako komentariogileak ipuin bakoitzaren gaia azaltzera jotzen du hurrena: erbesteratzearen gaiaz mintzo dira “Aio Aioma”, “Pindaturiko paisaia”, “Gerla istorioa”. Garai historikoetan kokaturikoak dira Etxepareren zahartzaroaz eginiko “Disiecti membra poetae”, Matalas-i buruz eginiko “Oroitzera eseri” eta Merlino maitasunaren fatalitateaz “Amorante ausarta”n. Beste hirurak guztiz ezberdinak, “Ukabilka” umore beltzari eginiko kontzesiotzat jotzen du komentariogileak, “Hamar liburuak” kartzelako esperientziaren lekukotza eta “Oroimena eta desira” aldiz heterodoxiaren bindikazioa omen da.

Pilar Iparragirrek ere (“Ifar aldeko orduak”, *Punto y Hora*, 1990, 572. alea, 63 or.) ipuin bakoitzaren gaia eta balioztapenari buruzko iritzia ematera jotzen du. Liburua erregularitasunik gabea iruditu zaio, “testuinguru eta idazkera ezberdinekoak, xarmangarriak bartzuk, ez hainbeste bateon bat”. Orokorrean Argiako komentariogilearekin bat dator balorazioetan, “Ukabilka” ipuinari deritzo ahulena, eta gaiei buruzko interpretazioan gutxi gora behera bat dator.

Egin egunkariko iruzkingileak ere (“Izkiritaturik aurkitu ditudan nire ipuinak”, *Egin*, 1990-V-1, Liburuak III) liburuak ipuin bakoitzari begiradaxoa ematen dio. Bat dator aurreko kritikoekin balioztapen eta kritikei dagokienez, “Ukabilka” eta “Haurrak pindaturiko paisaia” jotzen ditu ahulentzat. Gainerako kritikoek aipatzen ez duten zinearekiko harremanaren behin eta berriko aipamenak ikus-

ten dira azken komentario honetan: *Ifar aldeko orduak* zinezaletasun horren lekuko zintzoa omen da, adibidez, “Excalibur” filmearen *remakea* egin duela dio “Amorante ausarta” izeneko ipuinean.

Komentario honetan beharbada Sarrionandiaren estiloaz egiten den aipamena da interesgarriena: “Ez dago ustegabekorik oraingo honetan ere, ez bada estiloa hobetu egin duela eta gaietan, trokatilak barik, lepoa ere busti duela. Bizkaieran oinarrituta, klasikoez ondo ongarrizturik, ahozkoan Iurretatik urrundu barik idazten du Josebak. Batu egin du, bere erara eta bere kasa. Zehatza inor baino zehatzagoa izanik, aberastasunak dakarkio berba egokia leku egokian idatzi ahal izatea. Josebak lortu duen sintesia harrigarria da. Bere gramatika sortu du. Eta gramatika eta literaturaren arteko dialektika zuzenean, transgresioa eta araua arteko gatazkan bera dabil agintari. Hitz-Osteak eta Lerro-Armadak bere menpe ditu.”

2.2.5. Narrazioen alderdi tekniko batzuk: kontalariak, kontatze-metak eta ardatz krono-espazialak.

Narratzaileek gehienetan hirugarren pertsonan hitz egiten dute, eta narratzailea ipuinetik at dago liburuetako ipuin gehienetan. Guxiago dira lehen pertsona eta 3. pertsona nahasirik erabiltzen dituztenak, narratzailea ipuinaren barruan sartzen delarik, “Sobreilu baten historia”n bezala. Halere ipuinetako batzuk lehen pertsonan idatzirik daude: kontalaria ipuinaren barruan dago, hala nola esate baterako, “Mezurik gabeko eriotza”n Martintxoren istorioa kontatzeko.

Kandelako kritikoak dioenez, *Narrazioak* ipuinetan kontaketa bera da nagusitzen dena, eta prosa poetikotik hurbil dabil kasu askotan, hain zuzen ere, oso harira eta ongi lotuta datozen konparazioak eransten dituelarik. Era berean esaten du liburuan erregistro barietatea sumatzen dela, autoreak aitortua baitu liburu honetan duen helburuetako bat euskarari literaturan bide berriak ibiltzen laguntzea duela.

Teknika narratiboak ipuin bakoitzari egokiturikoak dira: zenbaitetan elkarriketa zuzenaz baliatzen da (“Itzalarekin jolasean” bezala) edo kontaketa hutsari lotzen zaio (“Arima naufrago bakartiak”en kasuan bezala) edo eskema paraleloak saiatzen ditu (“Estazioko begiradak” ipuinean).

Kandelakoek teknika narratiboen artean bereziki azpimarratzen dituzte ipuin hauetako deskripzioak: “... zerbait azpimarratzekotan, egileak deskribapenari ematen dion garrantzia aipatuko genuke.

Lehenengo narrazioetik hasita, deskribapenak betetzen ditu liburua-
ren orri gehienak, narrazio osoak. Kontaketa da nagusi, nola adiera-
zi, egoera bat azaltzea, adieraztea.” (88 or.)

Leku eta denbora ardatzen tratamenduari dagokionez, kritiko
gehienek nabarmendu dute Sarrionandiak “aldi iraganetara labain-
tzeko duen joera” (*Argia*), Susako komentariogileak gehitzen du
narrazioetako leku eta denbora asko zehazgabeak ez ezik, ez-denbo-
ra eta ez-espazio direla. Leiendazko denbora eta tokiak dira, fabula-
ren edo narrazio fantastikoen koordenadetan kokatzen dituelarik:
“denbora eta lekua, beste bi ezaugarriekin zorretan egonik, legen-
dazkoak direla, hau da ez-denbora eta ez-lekua direla, egileak sor-
tuak eta historiatic —kronologiatik— lekoratuak baitira.” (9 or.)

Aldi berean, gogoratu behar da ipuinetan leku-izen konkretuak
eta zehatzak ere ageri direla leiendazkoekin bat ez datozenak, kon-
trastean bezala sartuak. Hain zuzen ere egilearen geografia pertsona-
lari hurbilen zaizkionak dira aipatzen dituen toki horiek, esate bate-
rako, gai arturikoa duten ipuinetako bitan Durango eta Mugarra
mendiko oinetan kokaturiko toki zehatzak aipatzen dira.

Denboraren tratamenduari dagokionez, gehienetan lineala da,
gehienbat ipuinetan, ipuinak hasieratik amaierara denbora lerro
jarraituan doaz. Bakanak dira amaieratik hasten direnak, “Sonbreilu
baten historia” bezalakoak. Gainerakoan, denboraren zehazgabeta-
sun edo atemporaltasun hori gehiago azpimarratzeko asmoz edo, ana-
kronismoak sarrarazten ditu “Ginebra erregina erbestean” deritzan
ipuinean bezala.

Izan ere, egileak harridura eragingo duten anakronia eta atopia
horien bidez beti erne eduki nahi baitu irakurlea bere ipuinetako
errealitatea ez dela “historikoa” ohartarazteko. Horregatik kontakit-
zun arturikoetako pertsonaiak (“Amorante ausarta in *Ifar aldeko
orduak*”) Durango kokatzen dira: Merlin, Arturo... Erdi Aroko azo-
kak eta jarraian autopistak eta hotelak aipatzen dira narrazio berean.
Merlin magoak tesi bat du idatzia “The city as an artifact” izenkoa
eta Chicagon 5891 urtean defendatua... Egileak leiendetako, oraingo
eta etorkizuneko errealitatea aldi bereko egiten ditu, baina horrega-
tik beragatik pertsonaien askatasuna mugatua da, iraganaldia eta
leiendetako gertakariak bezala erremediorik gabeko fatalitatearen
menpe baitaude.

Sarrionandiaren narrazioaren indarra deskripzioetan dago eta ez
gertatuko denaren suspentsea edo estrategia narratibo korapilotsuen
erabileran. Egoerak bere zertzelada adierazgarrietasunaz azaltzen ditu,
eszenifikatu egiten ditu eta elkarrizketak ere labur laburrak izaten

dira. Hitz justukoa eta lakonikoa da pertsonaien mintzaira, narrazio Borges-zaleei dagokien moduan, baina egileak metafora eta sinboloen erabileraz hedatzen ditu, prosalan horietan mintzaira poetikoari hurbilduz. Horrela egoera horien dimentsioak eta atmosferak sortzen dituelarik, sarritan izialdura, malenkonia edo nostalgia sakonak eragin arren, irakurlearentzat beti hausnarketarako bidea bilakatzen dira.

Narraziogintza honen bilakaeran, Aitzpea Azkorbebeitiaren iritziz, lehenengo narrazio liburutik bi berriago hauetara leku denboren koordinadei dagokienez egileak determinazio gehiagorantz eta errealityterantz egin du: “Badirudi, beraz, orain arteko indeterminazio joera aldatu egin dela, lekutasunari dagokionez bederen. Aieru honek bat egingo luke, honela, Sarrionandiaren narrazio-bildumetan narrazio fantasiatsu eta irrealetatik errealaigoetarako garapena gertatu delako Kirmen Uriberen hipotesiarekin.” (J.S. 46 or.)

Edorta Jimenezek (1989, 8-9) eta Iñaki Aldekoak Sarrionandiaren narrazioek hasiera hasieratik izan dituen ezaugarriei loturik jarraitzen dutela ondorioztatzen dute (A. Azkorbebeitia 65 or.) eta hiru ardatzetan finkatzen dituzte prosa horren ezaugarriak: metaliteraturaren praktika, poesiatik oso hurbil dagoen prosa-hizkera eta hirugarrenik, istorioak ez denboran ez lekuan (kronotopo indeterminatuan, beste hitzetan) kokatzeko joera.

Alderdi horiez gain, Azkorbebeitiak berak eransten du jarraitasun tematikoa ere badagoela Sarrionandiaren obran, gai arturikoaren agerpen errepikatua, hizkera eta estilo konfundigaitza, metafora errekkurrenteak...

Bestalde, 1983kotik 1990eko narrazioetara bilakaera izan deneko hipotesiaren aldeko azaltzen da Azkorbebeitia, jadanik aipatua dugun kronotopo indeterminatuetatik determinatu eta errealaigoetarako norabidea, beti ere denboraren uruntasuna mantenduz. Lehenengo bi narrazio liburuetan narrazio-maila ezberdinekin jokoan dabilela, ametsa eta irudimen jokoak narrazio askoren zutabe direla ikusten badugu ere, azkenekoan, aldiz, joko hori alde batera utzia du. Horregatik, bat dator Azkorbebeitia Kirmen Uriberen garapen ikuskerarekin:

Lehen bildumako narrazioak klasikoak dira beraren iduriz (iraganera eta fantasiara jotzen dute eta borobilak dira). *Atabala eta Eurian* ostera, narrazio gordinagoak agertzen zaizkigu eta absurduak indarra hartzen du; azkenik *Ifarraldeko ordukoak* errealistagoak dira eta bizitza-zati bat jartzen digu-

te begien aurrean, hor ezer gertatzen ez delarik (bukaerarik gabe bailiran, narrazioetako bukaera itxietatik urrun). (*Joseba Sarrionandia. Irakurketa proposamen bat* (67 or.)

2.2.6. Estiloaz

Idazlearen estiloa da kritiko guztiek gauza guztien gainetik azpimarratzen dutena; denen iritziz, Sarrionandiak estilo dotore eta propioa du oretua. Aingeru Epaltzaren hitzetan esateko, “idazketa dotore nahastezina”: “Lilura, haren orrialdeek ageri duten kosmopolitismoak. Lilura, idaztankera dotore nahastezinak, egilearen ama-hizkeraren eta gure klasikoen ekarpenak uztartzen dituenak. Lilura, esaldi zehatz neurtuen elkar jostetak isurtzen duen manierismoak. Lilura, hasi eta buka, istorio bakoitza bideratzerakoan erakusten duen bertuosismoak.” (22 or.)

Iñaki Aldekoak “Joseba Sarrionandiaren poesia: itsaso gartzelera-tua” (*Hegats* 1989) delakoan, bere-berea duen estilo hori lirikoaren ukituak markatzen du: “Bere narrazioetan —jakina salbuespena salbu “Sonbreilu baten historia”, esate baterako— nabarmenagoa da poetaren tonu lirikoa kontalariaren ahotsaren ondoan. Eta ene iritzirako “estazioko begiradak” bezalako narrazio laburretan defendatzen da egokien tonu liriko hau.”(7 or.)

Sarrionandiaren ipuinen estiloa aski karakteristikoa zen sariak irabazi zituzten bere lehenengo bi ipuinetatik hasita, Jon Mirandere eragin handia nabari zuelarik baina narrazio liburu hau argitaratu zuenerako, narrazio estilo definitua eta guztiz pertsonala baitzuen. Idazle delikatua, fina, kosmopolita eta eruditotzat aipatu dute beti kritikoek. Bestalde, mintzaira horrek joera liriko nabarmena du. Beraz, estilo pertsonal horrek ematen dio bere obrari balore berezia. Izan ere, mundu guztiko literaturaren erreferentziek eta euskal herriko tradizio ezberdinek elkaturik aditzera ematen dute badela gure artean erdi-ezkutatuturik eta erdi-galdurik dagoen errealitate bat bere liburuetan islatzen saiatzen dena mundu mailako beste errealitate askorekin harremanetan jarriz, era bateko eta besteko ispiluez baliatuz, errealismotik fantasiaraino, eta alderantziz ere bai.

Horretarako erabiltzen duen mintzaira literarioak erro sakonak ditu bere formazio filologikoan. Euskal klasikoen ezagutza sakonari gehitzen zaio Mirandere prosa narratiboaren eragin handiari, moldaketa pertsonal batean aleaturik bere oinarritzko euskalki biz-

kaitarraren arragoan. Ez dago gehiegikeriarik ez konplexurik ezertan Sarrionandiaren prosan, orekatua dago iturri batekoa eta beste-koa idioleko pertsonal batean, baina bere zentzu estetikoaren arabera proportzioan eraikirik, eta ez inoren arau edo ereduari atxikirik.

2.2.7. Iturriak eta metaliteratura

Sarrionandiaren literaturaz hitz egiterakoan “metaliteratura” da kritiko guztien ahotan entzuten dena. Alegia, Sarrionandiaren ipuinak idazle edo tradizio batetik datozen argumentuez, pertsonaiaz eta egoerez baliatzen dira ahots propio batez “bestelako” errealitate edo egoera baten lekukotza emateko. Aingeru Epaltzak, esate baterako, Sarrionandiak “Itzalarekin solasean” ipuinean dakarren izen zerrendak jasotzen ditu: “Sapho, Li-Po, Jonathan Swift, Cesare Pavese, T.S. Eliot eta liburuan zehar, narrazio bakoitzeko sarrera aipuetan bereziki, agertzen direnekin batean ziklo arturikoa, Herman Melville, gure abozko tradizioa (Atarrabio, kantutegi zaharra) egilearen erreferentzien konstelazioa gure begi aitzinera dakar, eta horrekin batean, idazle handiek beren ondokoetan uzten dituen eraginez harantzago, literatura literaturgai izan daitekeela erakutsi ere. Liburu hau plaza-ratu zenez geroztik gure artean hainbertzetan aipatu den zorioneko metaliteraturaren deskubrimendua dugu. Jadantik idatzitakoa, gu denon eskura, jolasgai eta idazgai.” (23-24 or.)

Joseba Sarrionandiak berak egiten dituen erreferentzia literario guztiez gain, Jorge Luis Borges idazle argentinarraren eragina aipatu izan dute kritikoek behin eta berriro. Lehenengo aipamenak Jon Kortazarrenak dira (“Gaurko narratiba eta euskal literatura”, *Jakin*, 1982, 25 alea). Kausalitate magikoa errealitate harrigarriaren muinean kokatzen da Borgesentzuek, eta kausalitate lojikoa ukatuz edo, hobe, gaindituz, harrigarritasuna lojikaren derrigortasunaren amets bilakatuko da. Kausalitate honen bitartez, fatalismoaren kutsua berpiztu da gure literaturan, eta ipuinaren sinbolizazio-munduak zabal-tzen irakatsi digu Borgesei. Borgesen jarraitzaile literario bezala, Atxaga, Jimu (Jose Mari Iturralde) eta Sarrionandia aipatu behar.

Iñigo Kaminok ere *Argiako* iruzkinean Sarrionandiaren ipuingintza ipuingile hegoamerikarren tradizioa kokatzen du: “Beste zenbait ipuinetan Hego Ameriketako ipuin motz eta harrigarrien oroitzapena jaso dugu.” (4. or.)

Atxagak interpretazioa ematen dio egileak berak ezer ezkutatzeko edo inor engainatzeko asmorik gabe idatziriko azken oharretan jaso-

ak dauden erreferentzia literarioen zehaztasunari Sarrionandiaren “ni propiala”ren ausentzia eta isiltasunaren gaiarekin lotzen ditu: “Izan ere, bai behintzat ene iritzirako, isiltasunak inguratzen du nire lagunaren literatura. Ez da mintzatzen bere buruaz, ez du balore unibertsaltzat hartzen bere bizitza pribatua, bere intimitatea. Hitz batean esateko, ez da erromantiko bat, eta ez da erori, mugimendu haren epigonoak bezala, idazleak exhibiziolari eta irakurleak voyeur huts bihurtzen dituen literatura baten tentazioan. Are gehiago: Eliot, Faulkner, Chamisso eta beste hainbaten barrera hitz egiten digu, idazten du, eta horrela, ispiluz ispilu, bere Ni propiala non dagoen jakin ez genezakeela uzten gaitu.” (140-141 or.)

Sarrionandia bere liburuetan jasotzen dituen autoreen pertsonaien eta gaien bidez mintzatzen da, ez da joko erudito alfer bat metaliteratura hori, bere narrazioei sakontasuna, oihartzun eta iradokizunak eransteke polifonia baten erabilera baino. Haren liburuak irakurtzen dituztenek egin ditzaketen irakurketa maila infinito horietako batzuetan, beste literatur obra horien obraren oihartzunek, mezuaren aldetik nahiz estetikaren aldetik konplexutasun eta matizazio gehiago sumarazteko eta iragartzeko aukera eskaintzen diote autoreari bere lanak moldatzerakoan.

2.3. MARINEL ZAHARRAREN EZINBESTEKO KANTUA

Ñaki Aldekoak dioenez *Narrazioak* liburuan “errekurrentea da Coleridgek aspaldian kontaturiko marinel zaharraren baladako istorioa, Baudelairek ere albatrosari eskainiriko gorazarrean jaso zuena. Aingeru Epaltzak aldiz, nabigatzea bizitzaren metafora gisa jotzen duen Aldekoaren aipamena eta Borgesekiko aurreko erreferentzia elkarlotu egiten ditu: “Borgesek omen zioen idatz litezkeen istorioak oro, funtsean, bitan baizik laburbiltzen ez zirela: gurutziltzaturik hiltzen den Jainkoarena eta itsasoratzen den bidaiariarena. Sarrionandia, nabarmen, bigarrenean biltzen da. Bidaia, giza bizitzaren metafora. Itsasoa, ezinbertzearena, literaturarena. () Irudi horri loturik ageri zaigu transgresioaren ideia, gizonak istorioak imajinatzeari eman zioneko bezain zaharra. Literatura, giza arauaren urradura. “Arima naufrago bakartiak” eta “Marinel zaharra”, itsasoa eszenariotzat duten bi narrazioetan garbiki azaltzen zaigu, haste bereko gaztigutik: deabruarekin itsasoratzen bahaiz, berarekin egin beharko duk bidaia. Cero, Jainkoen kolera sortarazi zuten marinel akeoei bezala, aski izanen da gure lemazainak, dei misteriotso bati amore emanaz gure untzia zilar bidera gidatzea, bidaia itzulbiderik ez duen

amesgaizto bilakatzeko. Aski kalatxori bat hiltzea, itsasoaren mendekua pairatzeko. Baina hori ezinbertzea da, zilar bidea hautatuko baitugu beti, edo kalatxoria hilko, eta hala ere berriz itsasoratuko gara.” (24 or.)

Bernardo Atxagak ere bere epilogoaren sarreran Bernardo Soares-ek (Fernando Pessoaeren heteronomoak) idatziriko zati batean jasotzen du nabigatzen duen eta aldarrai dabilen untzia gaia: “Untzi bat helburu bezala nabigatzea duen untzia bat dirudi, baina bere helburua ez da nabigatzea, baizik eta portu batera iristea. Gu nabigatzen ari gara, baina ez daukagu babestzat hartu beharko genukeen portuaren ideiarik. Berritu egiten dugu horrela —bertsio mingarrian— argonauten formula menturazale hura: nabigatzea prezioa da, bizitzea ez.” (135 or.)

Aipamen honekin lotzen badugu epilogoaren amaieran dioena, garbi ikus genezake, Atxagaren ustez, Sarrionandiaren literaturak eta dudarik gabe adierazten duen joera etikoak nabigatzera badaramala, nahiz eta hartu beharko lukeen portuaren ideiarik ez duen, eta nabigatu egiten duela “Baina nabigatzen ari da. Eta oraingoz, hori da funtsezkoena.” (141) Beraz, nabigatzailearentzat egitea posible zaion eta ezinbestekoa duena egiten du, nabigatu, horretarako sortua balitz bezala.

Aingeru Epaltzak transgresioa burutu duen marinelaren patu fatal bera aurkitzen du mito Arthurikoaren markuan idatziriko “Ginebra erregina erbestean” ipuinean ere: “menturen haroa iragan da” eta “erbestera joan dira heroiak, eta debaldekua da haien itzulera etsipenaren eta esperantzaren aitzakia bilakatzea”.

Zalantzarik gabe marinela —aipatu ditugun idazle eta kritikoeekin bat etorri beharra dago— nabigatzailea edo itsasoratzen den, nahiz abiatzen den bidaiaren sinboloa da Sarrionandiaren poemagintzan nahiz narraziotan iraupen luzeenekoa eta nabardura gehien eskaintzen dituen, haren mundu ikuskerari buruz. Alde horretatik narrazio hauek bere aurreko eta ondoko idazlan poetikoeekin dute zerikusi nabarmena: Ithakara iristear dagoela, etengabe bidaiatzea hobe duela erabakitzen duen Ulises dugu *Izuen gordelekuetan barrena* liburukoa, Itaka beti gogoan duelarik, helburua hara iristea izanik ere, harantzako bidaian presarik ez duena, bidaia bera izango baita aberasgarria. Beti ere, bidaietz bidai, bere ziuatzea gainean eramango duela dakien bidaiaria da halere, “nire ahaleginak oro zapuztu egiten dira hemen” bere hirian, baina aldegingo balu ere “ez duzu beste lehorrik ez beste itsasorik aurkituko” gogoratzen dio Kavafis-ek.

Kondenatua dago portu hoberik ez aurkitzera, Coleridgeren marinela zaharrak bezain patu gogorra du gainean, ez jakinean, inoiz egi-

niko oker baten erruz kondenatua izan denaren gisan. 1987ko Joseba Sarrionandiak idatzi zuen *Marinel zaharrak* betirako kondenatu bat besterik ez dela badakien bezala, eta “Tren luze bat”ean “Trena beti infernuratuz doa”la badakien bezala. Coleridge ez ezik, Kafkaren narrazioen absurdua eta ulertu ezinaren oihartzuna sumatzen da, zein oker egin duen ez dakien kondenatu horren patu gogorrean, azken batean giza patuaren ezinbestearen eta ulertezinaren sinbologia baita.

Sarrionandiaren marinelak, edo Atxagaren moduan esateko, bere literaturan gehien dirauen “ispiluko irudiak” hamar urte beranduago ere hor dirau *Ifarraldeko orduak* (1990) liburuko “Amorante ausarta” narrazioan ere. Ez da hor marinela protagonista, Merlin azti maiteminduaren *fatuma* da gaia, baina Pott Bandako idazleei eginiko erreferentzia zuzen eta zeharkakoen artean, bada marinelaren aipamen bat ere. Hor azaltzen da, bada, Josemari Iturralde zalduna jazz musika entzunez, Durangoko irteeran dagoen zuhaitz itzaltsu baten ondora iristen da, Merlin eta Enare neskatxa haren ondora atsedean hartzera geratu direnean. Zuhaitz horrek, ordea...

“...hainbeste sustrai izugarriren gatibu ez balego, zuhaitz hori erromesa litzateke. Erromesa, nabegantea, bidaztia ez denez gero, Leonardo da Vincik erakutsi zion arteztasunarekin, eguratsa besarkatzen du. Bere gerizpean, iturriaren ereztean eseri dira. Leku lirikoan.” (94-95 or.)

Sarrionandiaren esanetan, Durangoko irteerako zuhaitz horrek pelegrina, bidazti edo nabigatzailea izan nahi luke, baina bere erro sakon-ikaragarriek eutsi egiten diote lurrari itsatsita, leku liriko horretan. Ikusi batera esan liteke zuhaitz hori Sarrionandiaren obraren irudi bat dela, leku lirikoan kokatua dagoela esaten du iturriaren ondoan, bere prosaren lirikotasunaz eta metaliteraturaz (iturriez) egin diren hainbat aipamen kritikori irri egin nahiez bezala.

Ohargarria da bere lagunen hainbat aipamen jasotzen dituen ipuin horretan esaten dena nabegantea izan nahi lukeen zuhaitz horrek, nahi lukeen moduan bidazti, peregrina edo nabigatzailea izaterik ez izatearen arrazoia bere sustrai sakon ikaragarriak direla. Sarrionandiaren obrak ezin du bere sustraien gatibotzatik ihes egin inolaz, eta ezinberitzean “arteztasunarekin” besarkatzen duela eguratsa.

Leonardo da Vincirekiko aipamena nola ulertu behar da? Leonardoren zein testuri buruz diharduen ezin argitu izan dugu, Lopez Gasenik bezala, lagunentzako, eruditoentzako edo adituentzako bakarrik diren aipamenen klabearen falta sumatzen du irakurleak

honelakoetan. Baina horretaz gain, zer da arteztasun hori, bizkaitarren “zuzentasuna eta leialtasuna” ala iparraldekoen adieraz, “sutilitatea”? Sarrionandiak sinboloen eta orakuluen mintzaira nola maite duen ikusita, pentsatzekoa da bi arteztasunak izan dituela gogoan. Izan ere, ikusi dugun moduan, bere liburuak askotan halako testuinguru kulturalaren premia eta interpretazio exegetikoaren beharra izaten baitute nolabait ulertzen, obra interpretatzen saiatzeko. Eta irakurleoi dagoki-gu berak iradokitakoaren haritik testua “berridaztea”, horixe da Sarrionandiak berariaz irakurleari egiten dion proposamena.

Ni neu irakurketa posible horietako bat egiten ausartuz, esan nezake bere inguruko eguratsa edo errealtatea besarkatzen edo kap-tatzen saiatzen den zuhaitz horrek erro sakonak eta izugarriak ditue-la lur honekiko, eta pelegin baten gisa aldegerik ez daukanez, zuzentasunez eta sutilitatez jasotzen duela bere inguruko errealtatea:

“Eta Merzlin eta Enarek goruntz begiratu dutelarik, zuhaitzaren arrametari gillette markako bizar laban tipiak daude zintzilik, ezkurak edo okaranak balira bezala.” (95 or.)

Bizar laban edo “gillete” fruituez abailduriko zuhaitz hori da, agian, idazlearen obraren irudia, arteztasunez besarkatzen duen egurats-errealtate hori xehatzeko tresna txiki baina distirant eta zorrotzen bidez irudikatu du. Horregatik esaten du Jose Mari Iturralde zal-dunak “aurten fruitu ugari emanen dit arbola horrek”².

Sarrionandiaren obretako giroari deserrotzearen erbestea eta nos-talgiaeren lanbroa darie, surrealismoaren, ironiaren eta paradoxa absurduaren herdoila itsatsi zaie bere hitzei. Lehenengo liburuetatik hona zeregin literarioaren izaera eta funtzioari buruzko etengabeko itaunean, ziurtasuna, zabaltasuna eta irizpide propioa mamitzen joan da berarengan. 1995eko *Nuyi illa... Poemak* liburuan zertarako bat ere nabarmentzen du, erabakia du saiatzea: “...ekin dezagun harik eta gure aberri eta/ sasoiaren tankerako hitzak aurkitu arte...” (*Nuyi illa*, 108 or.). Izan ere, sasoi makaletan ere poetek, “gau sagaratu-an lur batetik bestera aldarrai dabiltzan” Hölderlin-en poeta horiek, badute zer esanik eta zer eginik. Poesian bezala prosan ere zeregin horri lotzen zaio beti, aberriari eta garaiari doitasunez dagokion hitza bilatzeari poesiaren giltza ttipiaz, edota eguratsa arteztasunez besarkatzeari gilletek bezalako aitzo txipiez.

² Ikus 1990 urte inguruan Sarrionandiak buruturiko literatur lanen ugaritasuna.